

ttipi-ttapa



SARATARRAK

ETXEBIZITZEN

ESPEKULAZIOAREN AURKA

Harrabots haundia sortu du hastapenean 945.000 eurotan eta gero 720.000 eurotan saltzeko paratu duten Sarako etxearen kasuak. Aski dela erran eta etxebizitzaren espekulazioaren aurka lanean hasi dira.


Helburu horrekin, Saran Bizi taldea sortu dute. / 10

PATXI BELTZAIZ

Martxoaren 8rako berotzen

Elkarretaratzeak, tailerrak, antzerkiak, solasaldiak, film emanaldiak, mendi itzulia... Horiek eta gehiago Emakumearen Egunaren bueltan.

SINADURAK



Maria Feo Miguela Leitzako eskalatailearekin kontu kontari / 8



Xabi Iriarte Ibarrola Solaslaguna egitasmoko koordinatzailea da / 31

Leurtzako urtegia enpresa publiko batek kudeatzeko lanean / 28

Baztan-Bidasoko merkataritza antolatzeko plana onartu dute / 30



ZOKKETA / 60

BERA LESACA

Agenda 2023

**OTSAILA
MARTXOA**

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

MARRAZKI ERAKUSKETA
IKER VALLE
MARTXOAREN 19RA ARTE
Larunbat eta igandeetan
16:00-20:00 Ikastolako Areto Nagusia
Antolatzailea: Lahiaga ikastetxe **BERA**

OTSAILA

25 | **MERKATUA**
LARUNBATA | **MERKATU**
TTIKIA

10:00 Behoko Pizcan
LESACA

28 | **BERAKO BESTETAKO**
ASTEARTEA | **BILERA**
PARTE-HARTZAILEA

18:00 Beralandetan **BERA**

MARTXOA

4 | **KONTZERTUA**
LARUNBATA | **KANTAURI**
ABESBATZA

20:00 Kultur etxean **BERA**
Antolatzailea: Berako Abesbatza

9 | **LITERARTE**
ORTZEGUNA | **KONTUAN HARTU**
ETA KONTATZEKO
ISTORIDAK

18:30 Lesakako liburutegia.
LESACA

12 | **LESAKAKO**
IGANDEA | **MENDI**
LASTERKETA

Izen-ematea: www.berakroa.eus
Antolatzailea: Beti-Gozte **LESACA**

16 | **LIBURU**
ORTZEGUNA | **AURKEZPENA**
VUELTA AL PAIS
DE ELCANO
(Ander Izagurre)

18:00 Herri liburutegian **BERA**

18 | **TANTIRUDANTZA**
LARUNBATA

Antolatzailea: Tantarumairu Basical
Folklore Taldea **LESACA**

18 | **ANTZERKIA**
LARUNBATA | **GANBARA**
(Markeline konpainia)
SENDABERRI
PROGRAMA

19:00 Kultur etxean
Sarrera: 7 €
Antolatzailea: Nafarroako Antzerki Sarea
Diruz laguntzen du: Nafarroako Gobernua
Laguntzailea: Berako Udala **BERA**

19 | **ARGITSU**
IGANDEA | **ARTISAU AZOKA**

10:00-14:00 Behoko Pizcan **LESACA**

19 | **ZINEMA**
IGANDEA

16:30 Harriandean
Antolatzailea: Irain Eskola eta
Tantarumairu Ikastolako Gurusoak **LESACA**

ttiipi-ttapa

LIDERRAK

gure eskualdean

*baita azterketa egiterakoan
CIESek Nafarroa Garaiako
mendialdean hartu duen
111 udalerrien eremuan ere.*

2.000
Irakurle
BERRIA

3.000
Irakurle
GARA

5.000
Irakurle
DIARIO DE
NAVARRA

5.000
Irakurle
BERTZE
BATZUK

8.000
Irakurle
DIARIO DE
NOTICIAS

30.000
Irakurle
TTIPI-TTAPA

DATU ITURRIA: CIES, 2022ko bigarren neurketa

ADINAREN ARABERA

14-19	%6,4
20-24	%12,9
25-34	%9,3
35-44	%24,8
45-54	%15,8
55-64	%15,6
+64	%15,1

IKASKETA MAILAREN ARABERA

Unibertsitatea	%28,6
Oinarrizko ikasketak	%14,8
Oinarrizko batxilergoa	%21,2
Goi mailako batxilergoa	%35,2

SEXUAREN ARABERA

EMAKUMEAK	%57,3
GIZONAK	%42,7



NIRE TXANDA

JON ABRIL OLAETXEA

Libertateaz

Askatasunaren izenean bertze danbateko bat eman dio PSNk euskarari, Mañeru eremu ez euskaldunean utzita. Sozialistek harrokeriaz gaztigatu gaituzte euskaldunak, gehiengoaren hizkuntza-eskubideak direla defenditu beharrekoak, ez gutiengoarenak. Ederra askatasuna konprenitzeko manera! Hori ez aski, eta euskaldunok, gure eskubideak defenditzerakoan, erdaldun elebakarrak iraindu eta zalantzan paratzen ditugula bota zuen, lotsagorritu gabe, Julio eledunak.

Bide beretik hainbat epaile, funtzio publikorako sarbidea herritarren hizkuntza-eskubideen gainetik daudela erranez. Liburuzainak, medikuak edo administrazioko langileak euskararik ez dakiela? Horiiek lan egiteko duten eskubidea dago gu euskaldun gizajoon gainetik. Zer uste genuen, bada?

Ildo beretik hasi dira ere iritzi-emaileak, enpresariaren lobbyak eta erdaretako hedabide nagusiak euskararen kontrako gurutzadarekin: euskara kanpoko langileak erakartzeko oztopo dela.

Makurrena da, sarri-sarri, euskaldunok erosi egiten dugula diskurtso hori. Libertatea delakoan.

«EDERRA ASKATASUNA KONPRENITZEKO MANERA!»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

95 milioi euro eta 45 hilabete

Lehen begiratuan espetxe-zigorra dirudiena opari moduan eman digu Txibitek Belatekoa, «Baztan-Bidasoaldeko 22.000 bizilagunekin dugun zorra kitatuz». Baina Lesakatik N-121-A errepidera ateratzeko Iruña aldetik datozen autoak bijilatzeke lepoa 180 grado bihurritutakoan masajistara eta kardiologora egindako bisitak ez ditu ordainduko oraindik.

NABARMENTZEKOAK



OLAIA INZIARTE GORTARI
ARTISTA

Olaia Inziarte oronoztarrak bere lehenbiziko bakarkako diskoa atera du berriki: *Lehengo Lepotikan Burua*. Arrakasta haundia izan du, eta aurtengo Gaztea Sarietarako hautagai izendatu dute.



ENEIT BERTIZ APEZETXEA
TXIRRINDULARIA

Mendi bizikletako UCI probetan estreinekoa egin zuen otsaileko lehen asteburuan txirrindulari sunbildarrak eta ez nolana gainera, Volcat Platja D'Aro proba irabazi baitzuen.

GIBELERA BEGIRA



2013-02-14 · TTIPI-TTAPA · 584 zk.

Errugbiaren elean Saioa Jaurenarekin

Errugbiaren aritu zen TTIPI-TTAPA duela 10 urteko aldizkarian Elizondoko Saioa Jaurena Atxa errugbi jokalariaarekin. 6 urte zeramatzen errugbian jokatzen eta Bizkariaren taldean aritzeaz gain, Espainiako Selektzioaren deia jaso zuen bertan jokatzeke. Errugbiaren neska batzuk animatuta hasi zela kontatu zuen: «Hasieratik aunitz gustatu zitzaidan. Talde kirola denez, gehien gustatzen zaidana den artean jokatzen den kirola dela da, taldeko kide guztiak beharrezkoak direla». Errugbiaren kirol ezezaguna azaldu zuen: «Baztanten BRT dagoenez, jendeak kirola ezagutzen du baina gero partida bat ikustean gauza gehienak ez dituzte ulertzen. Etorkizunean jende gehiago mundu honetara hurbiltzea da denen nahia».



erran. eus



Argitaratzailea

TTIPI-TTAPA Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberriagarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerrekako	45€
Leitza	36€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	100€
Amerika eta Australia	152€



KOLABORAZIOAK

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

Peajeko gizona

Beharbada haren lana aspergarrizat zutelako, agian logaleagatik; baina ez du gogoan noiz hasi zuen josteta. Egiazor: goizeko seiak aldera etxeko sukaldean kafesnari koilaraz bueltaka zegoenerako jartzen zitzaion irudimena martxan. Nor etorriko ote zen egun hartan, nor sumatuko ote zuen faltan. Emazteak goizaldeko nekeari egotziko zion puntu batera finkoegi so egotearen zinezko isiltasunik eza.

Lepoak, Irungo lainoak eta autobideko erreien arteko burniek ahalbidetzen zioten angeluaren arabera hasten zen lehendabiziko asmaketa, artean errepidea ilun zegoela: autoaren marka eta kolorea; matrikula; ordainlekura sartzeko abiadura; dudarik egin ote duen Eskuz ala Automatikoa hautatu; aitzineregi doan, ia barraraino hurbilduta, ala ez. Lehen galbahea, errazena: turista edo bertakoa; ohikoa edo noizbehinkakoa. Segundo gutiren buruan egin behar izaten zuen zirt edo zart: honi «Egun on» erranen diot, bertze honi «Buenos días», tiketa nahiko du ala ez. «Eskerrik asko, agur». Eta, asmatuz gero, satisfazioa.

Hortik aitzinerakoak ziren konplikatuagoak: hots, interesgarrienak. Batzuk errazak ziren: adibidez, goizean 07:10 puntu-puntu furgoneta zuri bat, enpresaren errotulu eta guzi, 50 urte bueltako bi gizon urdinez jantzita, trikitixa ala

«DENBORA KONTUA BAINO EZ ZEN IZAN GAILUTXOAK IKUSTEA...»

rantxerak kasete –bai, kasete– entzungailuan. Horiek hamar segundora arte ere egoten ziren inor gibelean ez bazuten: eguraldiari buruzko iruzkinak, gaur ere hemen, igogailuko ala mekanikoareneko elkarrizketak. Herri ttipi

bateko obrako langileak nahitaez.

10:00ak aldeko emakumearekin zalantza gehiago izaten zuen. Hipotesia nagusia: 35 bat urte, pare bat ume, eskolan utzi ondotik doa lanera, baina zein lanetan hasten da hain berandu bat: beharbada arropa saltzailea? Ez: ez zuen bat egiten haren estetikarekin. Eta tarte ttipia: bortz segundo gehienez ere; kreditu txartela beti prest ordaintzeko, Caja Laboral, agur errespetuzkoa, enfasirik gabea, geza.

Zailena hark X gizona deitzen ziona zen. Frantziako matrikula, atorra iluna ongi plantxatua, ordu ezberdinetan gehienetan, automatikoa ala eskuak egunaren (ala eguraldiaren?) arabera, batzuetan jator, bertzeetan hitzik ez. Lau aukera: klandestino ohia (bi aldeetakoa), polizia, enpresaria ala dirudun putazalea (kombinazio posible guzietan).

Ez zuen espero nork eta haren kontratatzaile den Gipuzkoako Foru Aldundiak kenduko ziola karamelua: Gipuzkoatik kanpoko erabiltzaileei ere, beharpena. Denbora kontua baino ez zen izan parabrizen gainaldeetan gailutxoak ikustea. Herri ttipiko langileek ez zuten agurtu. 35 bat urteko emakumeari kosta egin zitzaion aldaketara ohitzea, baina azkenean joan egin zen. Eta, azkenean, horrela, denak. Errieta botatzeko pazientziatz joaten da orain lanpostura. Asma dezake marokarra, Herbehereetakoa, alemana. Ia inoiz ez berberak. Kosta egiten zaio ernatzea.



ESTEBE APEZETXE MURUA

'Sorioneku'agoak izanen garelako

Bazterrak harrotu zituen azaro aldean Irulegi mendiko aurkikuntza geologikoaren berri emanaz atera zen albisteak. *Don't Look Up* pelikularen eszena sinestezinen batetik ateratakoak ziruditen erreazioak berehalakoak izan ziren: memeak, *merchandisinga*, mezuak... Bereziki atentzioa eman zidaten sare sozialetan eskuaren argazkia lagun publikatutako esaldi batzuk. Ez esaldiagatik, zabaltzen ari zirenengatik baizik. «*Sorioneku*agoak izanen ginatete euskaraz gehixeago arituko bazinete», pentsatu nuen nire baitan. *Soritxarrez* itxurakeria doktrina da irudia gurtzen dugun denbora zozo hauetan.

Bistan da Aranzadiren aurkikuntza apartekoa dela arkeologikoki ez ezik, sinbolikoki ere. K.a. I. mendean Nafarroako inguru hartan hizkuntza baskonikoan (gaur egungo euskararen aurrekaria zena) solastatzen zirela argi gelditu da, baita hizkuntza hartan alfabetatuak zirela ere. Horraino ados. Afera bertzelakoa da, ordea, hau guzia proiektatzeko dugun moduari begiratzen badiogu. Euskaldunoz ari naiz, doike. Gaur garena justifikatzeko, izan ginen haren beharra dugula iduri du; erranez bezala «hara zergatik garen gu euskaldunak, orduan halako brontzeko eskuetan delako hori paratzen zuelako».

«ERAKARGARRIA IZATEKO EUSKARAK ERREFERENTZIALTASUNA BEHAR DU»

Alabaina, izan ginen hark gaur garen hau ez du egiten, ezta biharkoa egingen ere.

Soziolinguistika Klusterraren azken karrika neurketen arabera, 15-27 urte bitarteko gazteen artean % 12koa da euskararen

erabilera. Euskal Herriaren zati aunitzetan ezagutza ziurtatua dagoela kontuan hartuta datu kezkarria da. Gurean ere kontua ez doa aise hobeki. Hori ikusteko aski da institutuan itzuli bat ematea. Hala ere, gazteak ez dira egoera honen erantzuleak; ez bakarrak, bederen. Edo akaso alaba edo semea D eredu matrikulatzen duen guraso euskaradun belarrimotzak uste al du ez dutela bide bera segituko bere ondorengoek? Nolako egurra, halako ezpala... Garbi dago ziztu bizian doan mundu globalizatuak ere ez duela sobera laguntzen.

Hala bada, erakargarria izateko euskarak erreferentzialtasuna behar du, baikortasuna, *takoak* eta esaldi irri-egingarriak. Karmele Jaiok Donostian aldarrikatu zuen gisa jainko ttipi inspiratzaileak behar ditu aro digital ero honetan. Purismoak utzi eta hizkuntza bat egunero berritzen den zerbait dela onartu behar dugu, zikinduko duen norbait izaten segitu dezan, bizitzaz lohituko duen norbait.

Etorkizuneko hizkuntza izateko, eta ez dadin Irulegiko eskua bezala museo baten parte izan.

11 GALDERA LABUR

JOON KIM BERAN BIZI DEN KOREARRA

«Maiteminduta nago hemen egiten diren beste»

Euskal Herrian hiru urtez bizi izan den korearra da Joon Kim, eta Toki Onako irakaslea da gaur egun Beran.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Zaila da! Burua txoriz betea duen mutikoa naiz, zentzu onean zein txarrean!

Zein dira zure zaletasunak?

Hagitz mendizalea naiz, ahalik eta gehien joaten naiz eta Bortzirietan bizitzeak aukera aunitz ematen dizkit. Eskalada ere asko gustatzen zait.

Nongoa zara?

Hego Koreakoa, Zeelanda Berrikoa eta Australiakoa naiz.

Noiz etorri zinen Euskal Herrira?

2020an etorri nintzen. Madril bizi nintzela pisukide euskaldun bat nuen, eta berak piztu zidan bere herriarekiko

interesa. Lehen urtean Donostian egon nintzen eta bigarren urtean Lekeition. Gero urte batez Extremadurara joan behar izan nintzen lanagatik, Berara etorri arte. Guztira hiru urtez egon naiz Euskal Herrian.

Zergatik etorri zinen Berara?

Egia erran ez zegoen nire esku. Gobernuari eskatu nion Nafarroako herri ttiki batean sartzea, eta hemen nauzu!

Zein da zure ama hizkuntza?

Ama hizkuntza korearra dut.

Non ikasi duzu euskaraz mintzatzeko?

Donostian bizi nintzenean asko entzuten nuen karrikan eta ikastetxeetan, baina ez nuen egiazki ikasi. Lekeitiora bidali nindutenean argi nuen AEKko ikastegian izena ematen nuela. Eta han ikasi nuen,



eta noski karrikan jendearekin solastatzean!

Zailtasun haundiak izan zenituen ikasteko?

Ez naiz hagitz argia, eta kostatzen zait entzuten dudana ez ahaztea. Gero, zailtasunik haundiena betikoa da: praktika. Alferra naiz eta horregatik ez dut nahi bertze menperatzen euskara.

Kultura aldetik ere Euskal Herria hagitz desberdina izanen da, ez?

Bai, noski! Maiteminduta nago hemen egiten diren beste,

inauteriak, adibidez. Hagitz arrotza egiten zait, hagitz berezia; dantzan dabilen jende mozarrotua, musika, joaldunak, giro polit eta adiskidetsua... izugarria da dena.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Euskal Herriak eskaintzeko duen guzti-guztia aprobetxatzea da nire asmoa, zatitxo bat baino ez dut ikusi!

Eta epe luzera?


Nazionalitatea ateratzea eta hemen betirako bizitzea.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Auzo lotsa: oposizioa gainditu ondoren

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Irakasle ikasketak 1980 urtearen inguruan bukatu nituen, baina, hala ere, 1991 arte ez nintzen sekula santan oposizioetara aurkeztu.

Oso zorte ona izan nuen, izan ere, urte hartako uztailaren hogeirako-edo, oposizioko hiru probak eginak genituen, eta hogeita bosterako, gutxi gorabehera, emaitzak argitaratuak zeuden; lehen ahaleginean gainditu nituen oposizio haiek, alajaina, euskararen adarrean; pozak txoratzen gelditu nintzen.

Garai hartan, Nafarroako Hezkuntza Departamentua, Golem Baiona zinema aretoen ondoan zegoen, eta, oposizioen emaitzak jakin bezain azkar, haraxe abiatu nintzen ziztu bizian eta alai.

-Kaixo, egun on! Xanti Begiristain Madotz nauzue, eta oposizioak gainditu ditudanez gero, nahi nuke zuek ikustea nire egoera fisikoa, zuei lana errazte aldera, izan ere, entzuna daukat, departamentu honetan, normalena izaten dela, ia bezperan bertan jakinaraztea maisu-maistrei, hurrengo egunetan non hasi behar duten lanean, alegia, zein hiri, herri edota auzotan, eta, nire kasuan, horrek arazo bat baino gehiago ekar litzakeenez gero, gizarte honetan, oraindik, mugikortasun errazeko gauza asko eta asko ongi egokitu gabe daudelako, ba, hementxe naukazue, zeuen begi zoliekin ni ikusi, eta zeuon ondoriok atera ditzazuen, azken momentuan estu eta larri ez ibiltzeko.

-Ederki! Oso ongi egin duzu! Eskertzen dizugu etorri izana, baina gogoan eduki behar duzu, oraindik hilabete baino gehiago falta dela ikasturtea hasteko, beraz, lasai, ez baita arazorik izanen -erantzun zidaten patxada eta lasaitasun handiz-. Eta norekin aritu nahiko zenuke, haurrekin ala pertsona helduekin?

-Al, ahal izanez gero, helduekin nahiago nuke, -esan nien inolako zalantzarik gabe-, denekin arituta nago,

baina, uste dut, azkeneko horiekin, hobeki molda naitekeela.

-Ail, sentitzen dugu, Xanti, baina Nafarroako Gobernuko euskaltegian, une honetan, sarreran, eskailera luzeak daude; konponbidea jarri bezain azkar, hantxe jardun ahalko duzu. Deituko dizugu, lasai.

Asteak aurrera joan ziren eta ikasturte hasiera ere hurbildu zen. Ia-ia bezpera arte, ordea, ez nuen haien berririk eduki.

-Aizu, Xanti, heldu den astelehenean, Uhartxe Eguesibarko eskola publikora joan behar duzu. -Esan zidaten laburki eta soiltasunez, luzamendu gehiagorik gabe, horrela, aparteko garrantzirik ez baleuka bezala.

Bueno, ba, asteburua bukatu bezain azkar, txintxo-txintxo eta jakin-min dezentearekin, Uharteko eskola publikoan agertu nintzen, eskatu zidaten bezala, baina lehengo muturrekoa sarreran bertan hartu nuen, iritsi bezain agudo: ikastetxera sartu ahal izateko, eskailera batzuk igo behar baitziren. Gerorago jakin nuen, igogailua ere jarri gabe zegoela, eta, komuna halaber egokitu gabe; a zer hasiera loriatsua! Eta goizari amaiera bikainagoa emateko, azkenean, esan zidaten nire irakasle postua, jada emana ziotela beste pertsona bati, behin betiko plaza lortua zeukalako hantxe bertan, eta, Hezkuntza Departamentukoek, antza, ez zekiten ezer, edo, niri, behintzat, ez zidaten deus ere esan.

Gauzak hala, harri eta zur, etxera itzuli eta egin nuen lehenengo gauza, Hezkuntza Departamentura deitzea izan zen: «Baina, baina, zeinen zaila dagoen hau! Jesus, Maria eta Jose!» -entzuten nien nik telefonoz beste aldetik, euskarazko plaza librearen bat bilatzen zuten bitartean-; «Ea non arraio gelditzen den leku hutsen bat, mutil hau bidali ahal izateko! A, begira, begira, Zizur Nagusiko eskola publikoan, ematen du, bete gabeko plaza bat dagoela!; haraxe igorriko dugu! Jainko maitea, ze konplikatu izan den dena, baina, bueno, azkenean, lortu dugu!», -esan zuten, azkenik, bukatzeko.

Horrela, ba, biharamunean bertan, berriz ere, beste eskola berri baten bila abiatu nintzen, Iturramatik Zizur Nagusiko urbanizazio berriraino, ahal bezala, gurpil aulki motordunean.

Eta, nahi eta nahi ez, euskarazko plaza bat eman behar zidatenez gero, nik egindako oposizio motarengatik, honako hauxe bota zidan kopetara, hango zuzendariak, erdaraz, batere gorritu gabe:

-Begira, Xanti, sentitzen dugu, baina, hemen, libre gelditzen zaigun plaza bakarra, A ereduakoa da, hiru eta lau urtekoekin; ea nola moldatzen zaren!

-Moldatu? Baina, baina, bueno! Zuek burutik ongi al zaudete? Zer egin behar dut nik hiru eta lau urtekoekin, euskaraz hitz eginez, eta, beraiek batere ulertu gabe? Nola konponduko naiz? Ni beti pertsona helduekin aritu naiz, edo, bestela, haur koxkorragoekin... Zuek esanen didazue nola moldatuko naizen hemen! -Nik, arduratuta.

-Lasai! Zu saia zaitez eta ikusiko dugu zer gertatzen den; joan ahala erabakiko dugu zer egin. -Bukatu zuen elkarrizketa zuzendari jaunak; eta, tira, ikusi egin behar zer pasatzen zen handik aurrera. Gauza onik ez, segur aski.

Horri guztiari, gehitu behar zitzaion, garai hartan, oraindik ere taxiak, hiribusak eta abar egokitu gabe zeudela, eta, hura hala, lehenengo egun eta asteetan, moldatu behar izan nuen ahal bezala; Iruñeko Iturrama auzotik Zizurreraino, nire kabuz, gurpil aulkian, bakarrik, espaloiak eta beheragune gehienak ere egokitu gabe, eta, eguraldi txar guztien menpean. Egia esateko, hura ez zen azaren azpiko orria izan. Aurreraxeago, ordea, azkenean lortu nuen Gurutze Gorriak zerbitzu haiek egitea, eta, gaitz erdi!

Irakurleok, ikusten duzuen bezala, garai hartan behinik behin, Hezkuntza Departamentuko jaun-andre txit argiak, nirekin behintzat, ez ziren asko luzitu.

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Kultur etxea, kultura-etxea edo kultura etxea?

Euskaltzaindiaren arabera, hirurak zuzenak dira. Berez a itsasiak ez dira galtzen elkarketa egiten denean, eta hitzak bere osotasunean eman behar dira, marratxoarekin edo gabe:

-***hezkuntz proiektu**, ***hezkuntz-proiektu** > **hezkuntza proiektu**, **hezkuntza-proiektu**

-***ikerkuntz deialdi**, ***ikerkuntz-deialdi** > **ikerkuntza deialdi**, **ikerkuntza-deialdi**

Salbuespen honako sei hitz hauek dira: *burdina*, *eliza*, *hizkuntza*, *kultura*, *literatura* eta *natura*. Hitz horiek hiru aukera dituzte arauz.

Alegia, a gal dezakete, eta orduan, bereiz idatzi behar da hitz elkarteak: kultur etxea, eliz agintaria, hizkuntza gaitasuna, kultur emankizuna, literatur tradizioa, natur zientziak. (Ez dira zuzenak ***kultur-etxea**, ***eliz-agintaria**, ***hizkuntz-gaitasuna**, ***kultur-emankizuna**, ***literatur-tradizioa**, ***natur-zientziak...**)

Edo gorde dezakete a, eta orduan, aukerakoa da marratxoa: eliza(-)zerga, hizkuntza(-)eskola, kultura(-)produktzioa, literatura(-)joera, natura(-)gertakaria...

Araua hori izanik ere, sei hitzok ibilbide propioa egin dute. Zientzia- eta teknika-liburuetan eta ikasliburuetan a hori ez kendu eta marratxoa erabiltzeko joera nagusitu da: natura-erreserba, natura-parke, hizkuntza-politika... Literaturan eta prentsan, ordea, marratxoak presentzia txikia du, eta horixe da TTAPI-TTAPAK hartua duen bidea: marratxoa aukerakoa denean ez du erabiltzen.



Nola erran

'*Zorte!' edo 'Zorte on!'

Euskaltzaindiak berariaz deus arautu ez badu ere, pentsatu behar da *Egun on!* eta gisako moldera eratu behar dela esapidea. Norbait zoria opa diogunean, beraz, *Zorte on!*, *Zori on!* eta gisako lokuzioak dira egokiak (ez *Zorte! soila, ezta *Suerte! ere).

Osatu bikoteak


SAGUZAR
BELAI
KATAGORRI
PINPILINPAUXA
ZAPATU
ZOTIN

URTXINTXA
ZANPATU
TXOPIN
GAUENARA
SORO
TXIMELETA

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

«Eskaladan gogoia eta hobetzeko motibazioa izatea garrantzitsua da»

MARIA FEO MIGUELA LEITZAKO ESKALATZAILEA

laz Espainiako Zailtasun Eskaladan hirugarren izan zen 20 urtez azpikoetan, eta 2021ean abiadura eskaladan postu bera lortu zuen. Hasi berria da, baina bikain ari da 18 urteko leitzarra

G. PIKABEA LEITZA

Ttikitatik maite izan du Maria Feo Miguelak (Leitza, 2004) gora eta behera ibiltzea. Gogoan du «ume garaian toki guztietara igotzen nintzela, zuhaitz guztietara». Ez du ahaztua aurreneko aldiz eskalatu zuen aldi hura ere: «lau edo bost urterekin izan zen. Erotua gelditu nintzen». Zaletasuna betitkizanagatik, berriki eman du entrenamenduekin hasi eta txapelketetan parte hartzeko pausoa. Hasi berria izateko, ordea, erakustaldi ederrak ematen ari da: 2021ean, Espainiako Abiadura Eskaladan hirugarren gelditu zen 18 urtez beharakoetan eta 2022an ere hirugarren egin zuen Espainiako Zailtasun Eskaladan 20 urtez azpikoen kategorian. Denboraldia «oso pozik» bukatu zuela aitortu du, eta dagoeneko hasia da datorrenari begira, «hobetzeko gogotsu». Haur Hezkuntzako ikasketak egiten ari da urrutitik, eta horrekin uztartzen du pasioz bizi duen eskalada.

Nondik heldu zaizu eskalatzeko zaletasuna?

Ttikitatik izan dut, eta berezkoa dela esanenuke. Nire gurasoek ez dute eskalatzen eta nire inguruan ere ez dut jende asko ikusi eskalatzen. Ni, berriz, txikitan toki guztietara igotzen nintzen, zuhaitz guztietara.

Noiz joan zinen aurreneko aldiz eskalatzera?

Lau edo bost urte izanzen nituen, Eskoriatzako Mundu Mirajaietan.

Eskalatzeko pareta bat zegoen eta probatu nuenean erotua gelditu nintzen.

Eta noiz hasi zinen eskalada serio hartzen?

Bere garaian, belauneko arazo bat izan nuen eta tarte luze batez kirolik egin gabe egon nintzen. DBHko lehenengo mailara arte herrian gimnasia artistikoa egin nuen eta futbolearen ere ibili nintzen, baina

oso gutxi, belauak ez zidan utzi. Berriz kirola egin nahi nuela hasi nintzen, eta orduan erabaki nuen eskalatzen hastea. 2020-2021 ikasturtean Tolosako kiroldegian izena eman nuen eta entrenatzaile batekin hasi nintzen. Ordura arte ez nintzen eskalatzen ibiltzen. Gaur egun, Berriobeitin egiten ditut entrenamenduak.

Asko entrenatzen zara?



Maria Feo blokeko eskalada egiten. UTZITAKO ARGAZKIA

Bai, astean hiru entrenamendu saio egiten ditut rokodromo barrenean eta asteburuetan libreki eskalatzera joaten gara Etxaurira kanpoan ibiltzera. Gehiago aritzen naiz barrenean, baina nahiago dut kanpoan eskalatu, politagoa da. Hortaz aparte, egunero gimnasioan zerbait egin behar izaten dugu. Astean, guztira, 16-17 orduz egiten dut kirola.

Abiadura, zailtasuna, blokeko eskalada... Hainbat modalitate daude. Zein duzu nahiago eta zeinetan moldatzen zara hobekien?

Zailtasun eskalada da gehien gustatzen zaidana. Entrenatzaileek denetan ongi molda naitetekeela esan izan didate, baina blokeko eskaladan hobeki moldatzen naizela uste dut, denbora gehiena horretan pasatzen baitut.

Noiz hasi zinen eskaladan lehiatzen?

2021eko irailean izan zen. Iruñeko teknifikazio taldean nenbilen eta Nafarroako selekzioarekin Espainiako Eskalada Txapelketako modalitate guztietara apuntatu ginen. 18 urtez azpikoen kategorian hirugarren gelditu nintzen abiaduran.

Eta joan den urtean Espainiako Zailtasun Eskaladan hirugarren gelditu zinen 20 urtez azpikoetan. Hasi berria izateko emaitza onak lortzen ari zara...

Hori ere Nafarroako selekzioarekin lortu nuen. Egia esan, oso pozik nago lortutako emaitzekin.

Nafarroa mailan garaipen gehiago ere lortu dituzu...

2022an, 20 urtez azpikoetan, Nafarroako Abiadura Eskaladan lehenengoa izan nintzen, zailtasun eskaladan bigarrena eta blokean lehenengoa. Baina esan beharra dago ez duela jende askok parte hartzen...

Azken denboraldiaren inguruan, nolako balorazioa eginen zenuke?

Oso gustura gelditu naiz. Ikasketa prozesu bat izan da. Joan den ekainean hasi ginen eta entrenatzaileak soka eskalada txapelketara eraman behar ninduela esan zidan. Onartu



Maria Feo leitzarria entrenamenduak egiten dituen rokodromoan. UTZITAKO ARGAZKIA

behar dut hasieran haserretu nintzela, ez bainuen soka lehiatzeko prest ikusten neure burua. Ez nekien nola antolatu behar nuen, baina soka eskalada egitera joan eta nahiko ongi bukatu nuen.

Lehia gustuko duzu?

Bueno... Lehiatzen ere ikasi egin behar da. Urduritasun handia sentitzen dut txapelketetan eta oraindik horiek kontrolatzen ikasten ari naiz. Momentu bakoitzean zer egiten ari zaren oso ongi jakin behar duzu, galduta bazaude akabo. Dena den, orain arte egin dudana gustatu zait.

Zeinek animatu zintuen lehiara?

Euskal selekzioan egin nituen laguneren bitartez, abiadura eskalada egiteko ikastaro batera

apuntatu nintzen. Lehenagotik Espainiako selekziokoak entrenatzen ikusiak nituen eta gustatu zitzaizdan. Erik Noya munduko abiadura eskalatzailerik onenetakoa da eta berekin ibili nintzen ikastaro hartan eta berak asko motibatu ninduen.

Lortutako emaitzek lanean segitzeko indarra ematen dizute?

Bai. Nafarroako emaitza horiek gehienbat lehiara ohitzeko izan ziren. Motibatu ninduen Es-

painiako I. Soka Eskalada Kopa izan zen. Azken aurrenekoa gelditu nintzen eta orduan motibatu nintzen.

Hurrengo denboraldiari begira zein helburu dituzu?

Denboraldia martxoan hasiko da eta aurten Nafarroako Eskalada Txapelketarako gogotsu nago. Helburua beti hobetzea da. Uste dut aurten 20 urtez azpikoen kategoria desagertuko dela eta hortaz, absolutura pasako naiz. Maila horretan

«MOMENTU ORO ZER EGITEN ARI ZAREN ONGI JAKIN BEHAR DUZU»

«AURTEN NAFARROAKO TXAPELKETARAKO GOGOTSU NAGO»

egiten ahal dudan lorpenik handiena finalera pasatzea izanen litzateke.

Zer behar da eskaladan ongi moldatzeko?

Gogoia eta hobetzeko motibazioa. Helbururik izan gabe, berdin-berdin joaten naiz entrenamenduetara.

Eta fisikoaz haratago, mentalki ongi egotea ere inportantea da?

Bai, oso lotua dago. Oso inportantea da burua lasai edukitzea, zeure buruari ezetz esaten badiozu, seguru eroriko zarela.

Elikadura zaintzen duzu?

Elikadurazaintzea garrantzitsua da, baina ez oso zorrotz. Entrenamendu egunetan entrenatzaileak zer jaten dugun bidaltzeko eskatzen digu, baina besterik gabe, gure gorputza kirola egiterako orduan nola dagoen ikusteko da.

Noizbait beldurrik sentitu duzu eskaladan?

Bai, askotan, gehienbat harroketara joaten garenean. Eskalatzeko ibili edo ez, edozein momentutan goitik harri bat etortzen ahal zaizu, eta kaskoa izanagatik... Eskalatzekoan zenbaitetan zintak ere oso urruti izaten dira.

Nola uztertzen dituzu ikasketak eta eskaladako entrenamenduak?

Urrutitik Haur Hezkuntza ikasten ari naiz. Goizean goiz esnatu eta goiz osoa ikasten pasatzen dut. Arratsaldean, astean hiru egunez, 15:30eko autobusa hartu eta Berriobeitira entrenamenduetara joaten naiz. Beste egun batzuetan gimnasia joaten naiz, bestetan ingelesa ikastera... Egunero-egunero zerbait egiten dut.

Nola ikusten duzu Euskal Herrian eskalada?

Oso maila altua dago, bai tiki-tikian, baita helduetan ere. Hori bai, emakumezkoak gutxiago gara. Nire taldekideen artean, adibidez, badaude neskek, baina gehienak mutilak dira.

Eskaladatik bizitzea posible da?

Badira hortik bizi diren profesionalak, baina neure burua ez dut horrela ikusten.

Espekulazioaren kontra lanean hasi dira Saran

945.000 eurotan saltzeko emana zen Sarako etxearen kasuarekin gainezka egin dute saratarrek, baina arazoa aspalditik heldu dela argitu dute. Etxebizitza espekulazioarekin kezkatuta, Saran Bizi taldea sortu dute eta jendeak gaiaren inguruan kontzientzia hartzea nahi dute

G. PIKABEA SARA

Aski dela erran dute saratarrek, herriak bizi behar duela. Ez dute espekulaziorik nahi, «ez Saran, ez nehon» eta karrikara atera dira hori aldarrikatzera. Harrabots haundia sortu du hastapenean 945.000 eurotan eta gero 720.000 eurotan saltzeko eman duten Sarako etxearen kasuak. Aspalditik heldu zen arazoa lehertu egin da horrekin. Izan ere, problema ez da etxe horrena bakarrik, azken urteotan bizitegien prezioak ainitz emendatzen ari dira Saran, Battit Laborde Sarako auzapezak dioenez, «alimaleko prezioetan emanez», eta horrek ezinezona sortu du herritarren artean. Ez hori bakarrik. Saran Bizi taldeko Oihana Blancok erran duenez, baita «kolera» ere. Etxebizitza espekulazioaren kontra Saran Bizi taldea sortu dute.

Urtarril erditsuan sortu zuten taldea. Blancok esplikatu duenez, «Saran duela ainitz bada problema hori, eraikitzeke lurrak eta etxeak kristoren prezioetan dira». Azken kasu horrekin, ordea, mugitzea erabaki dute: «Etxea kasik milioi bat eurotan eman zuten saltzeko, plaza ondoan da eta segidan begiz jo genuen. Gazteon artean partekatua izan zen». Hortik abiatuta, urtarrilaren 22an 200 bat lagun bildu ziren manifestazioa egin zuten, eta geroztik bi bilkura ere egin dituzte: «lehen bilkuran 43 lagun bildu ginen, tartean hamasei hautetsi, eta bigarren 20». Garbi utzi du «herritarren mugimendua dela, hautetsiak ere herritar bezala heldu dira. Alde ai-

nitzetako jendearengan sumatu dugu egoera aldatzeko nahia eta hori plazer da».

Labordek onartu duenez, «beti uste izan dugu Saran berteetan baino gutiago izan dela espekulazioa, baina bistan da da berteetan bezala badela

hemen ere. Bizitegiak halako prezioetan ematen baldin badituzte...». Gaineratu duenez, «lehenago Hego Euskal Herri- ra begira egoten ginen, bizitegiak ikaragarri karioak ziren. Izan dira jendea Hegoaldetik Iparraldera bizitzera etorri di-



Oihana Blancok Euskal Herria ez dagoela salgai nabarmendu du. UTZITAKO ARGAZKIA



Battit Laborde auzapeza egoerarekin kezkatua dago. GURE IRRATIAK

«ONESGARRIAK EZ DIREN GAUZAK ARI DIRA PASATZEN»

BATTIT LABORDE, SARAOK AUZAPEZA

«GAZTEEK BERTAN GELDITZEKO ARAZOAK DITUZTE»

OIHANA BLANCO, SARAN BIZI TALDEKOA

ren momentuak; Konparazionera, Hendaia erdia baino gehiago Hegoaldekoa da. Gu, orduan, ez ginen hainbertze hunkituak. Baina orain hona ere ailegatu da».

Etxebizitzen inguruko arazoa orokorra da Ipar Euskal Herrian. «Begiratu kostako herri horiek», adierazi du auzapezak: «lanean ari den jende xehea bakantzen eta urruntzen ari da, ez baitu prezio horietan bizitegia atzemateko aukerarik. Administrazio publikoak alokatzeko edo prezio apaletan emateko bizitegiak eraikitzen ahal ditu. Publikoak baditu tresnak etxeak erosteko, baina beharrik badiren oraino prezio egokian ematen dituzten etxejabeak. Bertzela herriko etxeak ere ezin izanen lituzke erosi».

Frantziako jende sotsuna

Blancoren hitzetan, «Frantzia aldeko jende sotsuna da» hain kario ematen dituzten etxebizitza horien eroslea: «Erretiratuak dira ainitz, gazteak ez hainbertze. Eta espekulatuak ere bai. Haiei ez zaie inporta etxea 500.000 eurotan erosi eta 800.000 eurotan saltzea». Horrekin arrangura da auzapeza: «etxeak ez ditu Hegoaldetik heldu den jendeak erosten. Gure kultura eskuratzen ez duen Frantziako jendea da hemengo bizitegiak erosten ari dena. Jendea pittaka-pittaka heldu denean, herritar bilakatzen dituzu, baina halako tropak heldu direnean ez dute gure kultura bameratzen. Gure izpiritu euskalduna lekutan gelditzen da».

Jende erretiratuaz gain, bertzelako joera sumatu du Labordek: «Zuntza dela, telana dela... Hori denak emanez, uste duzu norbaitek luzez dudatuko duela Parisen karrিকা zahar batean, kepean edo ilunpean bizi edo Saran edo Senperen bizi? Soldata ona duen jendea da, telelanaren bidez lan egin eta hemen bizitzeko aukera duena». Bide beretik, «bigarren bizitegia dutenak ere urte batzuen buruan



200 bat lagun bildu ziren urtarrilaren 22an Saran egin zuten manifestazioan. PATXI BELTZAIZ

bizitzera etorriko direla» uste du. «Problematika gotorra da».

Hain zuzen, espekulatu nahi dutenen jarrera salatu du Labordek: «Ainitzek lur bat eta etxe bat hartu, pixka bat antolatu, han bizi direla erran, eta bi urteren buruan kristoren irabaziak ateraz saltzen dute. Hori ez da onegarria». Horregatik dio «gutako bakoitzak kontzientzia hartu» behar dugula; «Izanen dira milioi bat euro balioko duten etxeak,

baina 200.00 eurotan egindako etxe bat milioi bat euroan saltzea ez da onartzen ahal. Gure Euskal Herrian zer nahi dugun galdegin behar diogu geure buruari». Turismoaz ere aritu da: «Turismoak hein batetik goiti herria izorratzen ahal du, eta hein batean mantentzen bada, lagundu. Ez duzu erraten ahal turismorik ezetz, baina baitezpadakoa da oreka».

Bai Blancok, bai auzapezak argi utzi nahi izan dute «denon

arazoa eta ardura» dela. Labordek esplikatu duenez, «Herriko etxean eginahalak egiten ditugu. Herriak baditu etxeak erosiak prezio onegarrian ezartzeko. Bizitegiak alokatzen ditu eta Apezetxean bizitegiak egin nahi genituzke, baina hori ez da aski. Espekulazioaren gainekolan haundia egin behar da».

Lehen: diagnostikoa

Egoerari buelta eman nahian, hiru lantalde egin dituzte Saran

Bizi taldean: «talde bat diagnostikoa egiteaz arduratuko da, bertze bat kontzientziazioa eta hirugarrena elkarlanerako sarea muntatzeaz».

Blancok horietako bakoitza azaldu du: «Diagnostikoa eginez, Sarako etxebizitza beharrak aztertu nahi ditugu: zenbat pertsonak nahi duten alokairuan hartu, zenbatek erosi gogo duten etxea eta zenbatek pisua, zenbatek ez duten jabetzan etxerik hartu nahi...». →

Biztanleriaren emendatzea Ipar Euskal Herrian

Herria	1990	2020	Aldea (%)
Hendaia	11.578	17.621	+% 52,2
Biriatu	694	1.231	+% 77,4
Urruña	6.098	10.495	+% 72,1
Ziburu	5.849	6.109	+% 4,4
Donibane Lohizune	13.031	14.282	+% 9,6
Azkaine	2.653	4.363	+% 64,6
Sara	2.054	2.705	+% 31,7
Senpere	3.463	7.102	+% 105,1
Ainhoa	539	668	+% 23,9
Ezpeleta	1.661	2.036	+% 22,6
Itsasu	1.563	2.163	+% 38,4
Bidarrai	585	662	+% 13,2
Baigorri	1.565	1.499	-% 4,2
Banka	426	348	-% 18,3
Aldude	433	324	-% 25,2
Urepele	400	276	-% 31,0

Ipar Euskal Herrian etxebizitza-rekin eta lurrekin duten arazoa orokorra da, eta biztanleriaren hazkundea badu zerikusia. Hastapenean kostaldeko fenomeno izan zen, baina azken 30 urteotan barnealdera ere hedatu da. Taula honetako datuak dira horren erakusle.

Biztanleriaren gorakada nabarmena izan dute Lapurdiko herri ainitzek, eta kontrako joera Baxenabarreko bertze batzuek. Bereziki deigarria Senpereko kasua da. Azken 30 urteotan bikoiztu baino gehiago egin da biztanleria, eta hori arazo bihurtu da. Horren karie-

tara, estatu frantseseko legeak ekarri ditu gogora Sarako auzapezak: «3.500 biztanletik goitiko herrietan gobernamentuak bizitegiak eraikitzea behartzen du eta ez badituzte egiten alimaleko zergak ematen ditu. Bide horrek jendea garraiatzen du».

Horrez gain, Senperen behin baino gehiagotan salatu dute etxebizitza espekulazioa. Buruilean, protestak eragin zituen lbarrun auzoko etxe baten salmentak: hastapenean 750.000 eurotan saldu zuten, eta hamar egunen buruan, jabe berriek 500.000 euro karioago jarri zuten merkatuan: 1.250.000 eurotan.



Espekulazioaren kontrako mezuak egin zituzten saratarrek urtarilaren 22ko mobilizazioan. PATXI BELTZAIZ

—> Gaineratu duenez, «Saran badira urteko sasoi jakin batzuetan alokatuak diren etxeak, eta bertako gazteek zailtasunak dituzte etxeak alokatzeko. Hori ere aztertu nahi dugu. Bada-kigu urte osoan alokatuta tasak altuagoak direla jabearentzat, karioago ateratzen zaiela. Horregatik urte osoan alokatzeko laguntza eman nahi diegu». Laburbilduz, «Sarako argazki bat atera nahi dugu, bakoitzaren beharren arabera, bizitzeko bertze ereduak eta aukerak ere aztertuz».

Bigarrena: kontzientziazioa

Bigarren lantaldea kontzientziazioaz arduratuko da: «Gurretzat inportantea da saratarrek nor garen ohartzea. Euskaldunak gara, euskaldun giroan haziak. Hori atxikitze gaurdanik lan egin behar da». Eta bide beretik, «herritarrek etxebizitzaren prezioen inguruko kontzientzia hartzea» baitezpadakoa iduritzen zaio: «Jendeak etxeak merkatuko prezioetan salgai ematen dituela erratan du. Bai, baina nork finkatu ditu prezio horiek? Agentziak eta bankuak daude giblean. Prezioak igotzea eta espekulatzeko beraien jokoa da. 'Auzoaren etxea prezio horretan saldu bada, zergatik nirea

ez?', galdegiten du jendeak. Zaila da prezioa apaltzearen garrantziaz ohartzea, baina kontzientzia hartu behar dugu».

Bertzetik, Sarako «famiako etxe haundien» kasua ekarri du gogora: «300-400 metro koadroko etxeak dira. Sosa kostatzen da horiek mantentzea, eta ainitzek berri ezin dutenez, saldu egiten dituzte. Jendeak jakin behar du gobernamenduak berritzeko laguntzak ematen dituela».

Eta hirugarrena: elkarlana

Hirugarren lantaldea sareaz arduratuko da, «hau da, errolearen eta saltzailearen arteko bitartekaritza egiteaz. Adibidez, norbaitek etxea saldu nahi du, eta herriko etxera joaten bada, eta han baldin badakite hiru gaztek erosi nahi dutela, herriko etxeak edo guk bitartekari lana egiten ahal dugu etxea saratarrei emateko. Eta gauza bera alokairuarekin».

Sarako etxebizitzaren egoera

Blancok INSEE Frantziako Estadistika eta Ekonomia Azterketen Institutuaren datuak aipatu ditu etxebizitzaren egoera zein den ezagutarazteko. «Saran, guztira, 1.497 etxebizitzak daude (%5,34), eta 343 bigarren

etxebizitzak dira (% 22,91). Beraz, urte osoan hutsik daudenei bigarren etxebizitzak gehituta 423 dira (% 28,26)».

Auzapezaren arabera, «saratar gehienak gure etxeetan bizi gara, guti dira bordari». Baina beldur da gertatzen ahal denarekin: «Herritarrek bizitegiak kario ematen hasten badira, beraiek urratuko dute herria. Azkenean gure haurrei ere ezin izanen diegu etxea eman». Azaldu duenez, «zure etxea ondorengoei eman nahi badiezu, prezioa notarioak estimatzen du, eta horren gainean ehuneko bat zerga bidez ordaindu behar da. Merkatuan dauden prezioen arabera estimatzen badituzte prezioak, azkenean ez diezu pasatzen

«KONTZIENTZIA HARTU BEHAR DUGU»

OIHANA BLANCO, SARAN BIZI TALDEKOA

«DENON ARDURA DA, HERRIA DENOK EGITEN DUGU»

BATTIT LABORDE, SARAKO AUZAPEZA

ahalko zure haurrei. Badakizu zer diruak estimatuko dituzten eta zenbat ordaindu beharko duzun zergetan?».

Blancok, berriz, dagoeneko gazteek etxebizitzaren eskuratzeko arazoak dituztela dio: «Gazteek ezin dute bertan gelditu, eta ondoko herrietan ere zaila denez, ez dakit non bukatuko dugun, Saratik urrun». Gehiago ere kontatu du, «gurasoek ez badute lurrik edo etxerik uzten, gazteek ezin dute deus erosi». Eta adibide bat aipatu du: «bada lur eraikigarri bat 250.000 eurotan salgai emana. Nola nahi duzu lurra prezio horretan erosi eta materialen prezioen emendatzearekin etxea hor egin? Bikotekidea baldin baduzu, igual bien artean zerbait egingen duzue, baina independentea izan nahi baduzu, ezin duzu ezta pisu bat ere erosi Saran».

Itxaropentsu

Kezka kezka, Labordek argi izpi bat ikusten du eta itxaropentsu mintzo da: «herri hau pittaka muntatua da, eta gaur egun baditu hiru eskola, haur ainitz, hainbertze elkarte... Dinamika haundia du. Herria denok egiten dugu, eta denon artean lanean segitu behar dugu. Norbere xilkoari begiratu gabe, elkar sustengatzen badugu, iduritzen zait badirela aterabideak. Badut esperantzaz herritarrengan, eta batez ere gazteengan. Jendea onerako eta txarrerako izaten da, baina onerako hasten denean, gauza xoragarriak egiten ditu».

Eta Blancok hausnarketarako gonbita egin du: «Zer nahi dugu geroko? Zer nahi dugu gure haurrentzat? Zein ingurutan bizi nahi dugu? Nola mantendu nahi dugu euskalduntasuna? Has gaitetzen gaurdanik lanean. «Hola segitzen badugu, Sarako euskaldun giroarekin zer gertatuko da 20 urteren buruan?». Horrekin batera abisua ere luzatu du: «Euskal Herri euskalduna nahi dugu eta Euskal Herria ez dago salgai».



**EZ NAZAZU DEITU
PLASTIKOEN EDUKIONTZIA.
ONTZIEN EDUKIONTZIA NAIZ!**

EDUKIONTZI HORIAN

PLASTIKOZKO, METALEZKO ETA
TXAPAZKO ESTALKIAK ETA TAPOIAK

FILM-PAPERA ETA ALUMINIO-PAPERA

TARRINA ETA JOGURT-ESTALKIAK

ALUMINIOZKO ETA POLIEXPANEZKO ERRETILUAK

PLASTIKOZKO ONTZIAK ETA POLTSAK

ONTZI METALIKOAK

AEROSOLAK

BRIKAK



Zalantzak badituzu, bilatu ikur hau zure ontzian.





Plaza berritu eta errakari trazadura berria egin diote. BERAKO UDALA

Bukatu dituzte Plaza Zaharreko zuloa konpontzeko lanak

Bi hilabete inguru luzatu dira eta udala eta bizilagunak «gustura» gelditu dira lanen emaitzarekin

TTIPI-TTAPA

Iazko azaroan hasi zituzten Plaza Zaharra berritzeko eta Kalbario errekarari trazadura berria egiteko lanak. Uholdeek zulo handia eragin zuten, eta arazoari behin betiko soluzioa eman diote orain. Errekastoa bi metroko diametroa duen ubide berritik bideratu dute, espalo berria eraiki dute, hondakin ontzien puntua hobetu dute eta argiteria berritu dute. Gainera, Lorenzobaita aldera espazio bat egokitu dute etorkizunean bankuak paratzeko, bizilagunentzako elkargunea izan dadin.

Lanak Mariezcurrenak egin ditu, bi hilabete inguru luzatu dira eta 544.275 euroko aurrekontua izan dute, horietatik 497.390 euro Nafarroako Gobernuak ordainduak. Udala eta bizilagunak «gustura» gelditu dira eta eskerrak eman dizkiete enpresari eta kanal berria eraikitzen ibili den langile taldeari.

Historia ezagutzeko plaka

Etorkizunean, erreka lurperatzen den puntuan plaka bat paratuko du udalak, Plaza Zaharraren historia ezagutzeko.



UTZITAKOIA

Labiagako ikasleen irteera mendira

Otsaileko lehenbiziko asteburua ederki pasatu zuten Labiagako ikasleek. Larunbatean Santa Ageda bezpera ospatu zuten herrian barna makilak astinduz eta lurrak ernatuz. Igandean, berriz, ikastetxeari izena ematen dion Labiaga mendira irteera egin zuten, naturaz ederki gozatu.

'Hariztia' liburua kaleratu du Asier Gogortzak

2019an Urruñan ezkurak bildu, pandemia garaian ezkur horiek etxeko baratzean ernaldtu, 2021eko udazkenean kimuak mendian landatu, eta geroztik Erentzazuko gainean sortutako hariztiak izandako prozesu dena argazki liburu batean bildu du orain Asier Gogortza argazkilariak. *Hariztia, The oak trees* izena du argitaratu berri den liburuak, eta autoedizioa den arren Berako eta Urruñako udalen laguntzarekin kaleratu du. Puri-Enea dendan paratu du salgai, 26 eurotan.

Herriko bestak antolatzeko bilera otsailaren 28an

Berako San Esteban bestak abuztuan ospatzen badira ere, antolatzaileak prestakekin hasi dira dagoeneko, eta herritarren hitza aditzeko helburuarekin, bilera parte-hartzaileak egitea erabaki dute. Otsailaren 28an, asteartea, 18:00etan Beralandetan izanen da bilkura irekia.

Antolatzaileek bileran parte hartzea animatu dituzte beratarrek, herriko bestak herritar guztien artean egin ahal izateko eta beratar guztien iritzia biltzeko.

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

JAIONE-GOXOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

Abuztuaren 15etik
07:15etik aitzinera

Larunbata eta igandak
08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Adimen emozionalari buruzko ikastaroa

Martxoko lau asteartetan, eta apirilko lehenengoan egingen dute ikastaroa Beralandetan

A.LARRETXEKA

Gizarte trebetasunak eta adimen emozionala ikastaroa egingen dute martxoaren 7an, 14an, 21ean, 28an eta apirilaren 4an Beralandetan. Bortzietako Gizarte Zerbitzuak antolatu du ikastaroa, Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin batera, eta gaztelan izanen da. Saio bakoitzak lau orduko iraupena izanen du, 16:30ean hasi eta 20:30ak arte.

14 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako ikastaroa da. Bertan, gazteen arteko talde

bat sortuko dute, gune seguru bat antolatzaileen hitzetan eta bertan gai desberdinak landuko dituzte: komunikazio asertiboa, emozioak kudeatzeko gaitasuna eta baliabideak, entzute aktiboa, sozializazioa, empatia... norbere buruaren ezagutzan zentratuko dira aditu baten gidaritzapean.

Ikastaroa doan izanen da baina aitzinetik izena eman behar da asociacion@micudala.com helbidera mezu bat bidalita edo 693 47 81 91 zenbakira deituta.



Bidexka berri eta ura estolda batera bideratu dute. BERA KO UDALA

Eztegara pasealekua eta Kaxerna lotzen dituen bidexka berria egin dute

TTIPI-TTAPA

Berako Udalak Eztegara pasealekutik Kaxerna auzora joateko oinezkoentzako bidexka moldatu du, auzoko bizilagunek eskatua. Kaxerna Bera gaineko aldean gelditzen den muino batean dago, eta bertan gero eta etxebizitza gehiago eraikitzen ari dira. Bidexka honekin

auzoa eta herrigunea hobeki komunikatuak daude orain.

Eztegara aldetik hormigoizko eskailerak eraiki dituzte eta bidexka berria egin dute. Bidexkaren ondoan ubide bat dago, eta ura estolda batera bideratu dute. Eskailera berrien ondoan pareta tiki bat eraiki dute, segurtasuna bermatzeko.


 Jesusen Bihotza
 BERA

Aurre-izenemate
 epea martxoaren
 6tik 10era.



info@jesusenbihotza.com

Parte hartzetik parte izatera.

948 63 00 09
 640 07 43 06 (whatsapp)



Frain inguruan egin dituzte plantazioak dagoeneko. BASARTEA

367.795 euroko inbertsioa egingen dute mendi lanetan

Frain eta Ailegi inguruko 17 hektareatan ari dira orain landatzen eta Otsangoko 21 hektareatan ere egingen dute

AITOR AROTZENA

Mendikomunaletan 2022-2023 urteetan egin beharreko garbiketa eta landaketa lanak esleitu ditu udalak. Lan hauek egiteko 223.931 euro erabiliko ditu udalak. Hauetatik, 154.130 euro Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko ditu. Garbiketak, Frain, Ziobi, Ailegi, Aialde, Eskolamendi, Lantzarietako malda, Zumarra, Sas-trin eta Beltzau alderdietan egingen dituzte. Guztira ia 100 hektarea garbituko dituzte uztaile-abuztu aldera.

Landaketak Frain eta Ailegiko 17 hektareatan egingen ari

dira urtarrilean eta otsailean. Frainen, bertako haritza, gereziondoa, mendiko haritza, eta taeda pinua landatuko dituzte. Ailegin Zedro japoniarra, mendiko eta bertako haritza, gereziondoa, lizarra, ezkia, otsalizarra eta hagina landatuko dituzte. Sastrinen zerrakura erretiratuko dute.

Otsangoko 21 hektareatan ere landaketa egingen dute: bertako haritza, gereziondoa, alertzea, zedro japoniarra eta sekuoia. 143.864 euroko kostua izanen du, eta Nafarroako Gobernuak ordainduko du oso-osorik.



UTZITAKOIA

Nafarroako Torturatuen Sarea jendaurrean

Otsailaren 13a Torturaren Aurkako Nazioarteko Eguna zela gogoan, eskualdean torturaren inguruko zikloa antolatuta zuten. Baztan-Bidasoaldeko hitzordua Lesakan egin zuten otsailaren 4an. Nafarroako Torturatuen Sarearen aurkezpena egin zuten Herriko Etxean eta jende aunitz bildu zen.



BETI GAZTE

Arbolaren Eguna bi saiotan

Arbolaren Eguna antolatu du aurten ere Beti Gaztek, udalaren, Irain eskolaren eta Tantirumairu ikastolaren laguntzaz. Gardelkopagoetan otsailaren 11n egin zituzten lehen lanak eta ortzegunean, otsailak 23, 09:00etan abiatuko dira haurrak ikastetxeetatik eta arbolak landatuko dituzte.

Meme lehiaketa antolatu du Xulufriak sareak

Zaintza lanak gaitzat hartuta, meme lehiaketa antolatu du sare feministak. Instagram edo Facebook bidez @xulufriak kontura bidaltzeko eskatu dute. Meme irabazlea martxoaren 8an aurkeratuko dute plazan. Memeak sortzeko memeka.eus ataria proposatu dute.

Literarte jaialdiko emanaldia liburutegian

Literatura eta antzerkia uztartzen dituen Literarte jaialdiko emanaldia izanen da martxoaren 9an, ortzegunean 18:30ean, liburutegian. Ana Maestrojuá-nen zuzendaritzapean, lau libururen inguruko lau istorio lantzen dituzte taularatze bakarrean.



PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa



K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN



Centro Prim



regina.tolosaechepeare

2021eko uholdeek sortutako kalteak konpontzeko lanean

Konponketa guztien kostua 383.058 eurokoa da eta ikusteko dago zenbateko dirulaguntza hartuko den

AITOR AROTZENA

2021eko uholdeek herriko hainbat bide eta parajeetan eragindako kalteak konpontzeko lanekin segitzen du Lesakako udalak.

Urgentzia handieneko lanak burutu ziren, eta orain, ekainera bitarte, azken lanak egiten dira. Azken hauen artean, hauek daude: Endarlatsa inguruan bide konponketak, Zalain Zoko auzoko sarrera, Erroizko errekan egindako kalteak, Onsalen bordako bidea Zalain Zoko inguruan, Ailegiko errekan eta Mikelgo-

rri, Domiko, Garbisu, Eloseg, Intzinberri eta Ortzeroko bi-deak.

383.000 euroko kostua

Konponketa guztiak egiteko lanen kostua 383.058,65 eurokoa izanen da. Lan hauek diruz lagunduko dituzte Espainako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak. Batzuk % 100eko dirulaguntza izanen dute, baina bertze lan batzuen dirulaguntzak ebazteke daude oraindik, beraz ikusteko dago zer diru laguntza hartuko den horientatik.



UTZITAKOIA

14 aparkaleku berri beilatoki ondoan

Mugikortasuna hobetzeko asmoekin segituz, Lesakako beilatokiaren ondoan autoentzako aparkaleku bat sortu du udalak, 14 plaza dituena. Aparkaleku honek oinezkoentzat irteera zuzena izanen du beilatokiko eskaileretatik, herriko plazara oinez bi minututan ailegatzeko aukera eskainiz.





LARRIALDI ZERBITZUA +

 365 egun
 24 ordu gure bezeroentzat

ALBAITARITZA ZERBITZU INTEGRALA 

- Kontsultak
- Ebakuntza gelak

ILEAPAINDEGI ZERBITZUA 

MASKOTENTZAT EGOITZA 

DENDA ... 



Egin bezero txartela eta probestu abantailez

 Kontsultak eta hitzorduak: **943 620 230**

 Larrialdiak: **618 893 420**

 Whatsapp: **676 852 459**

 Colon Ibilbidea 27, behea. IRUN (Parkingetik sarbide zuzena)

Martxoaren 8aren harira hainbat ekitaldi prest

Filma, poteoa eta elkarretaratzea izanen dira, martxoaren 12an Arantzán eginen den Bortzirietako mendi martxaren aitzinetik

IRUNE ELIZAGOIEN

Etxalarko talde feministak antolatuta, hainbat ekitaldi izanen dira martxo hasieran. **Martxoaren 5ean**, igandean, 17:30ean, *Sufragistas* filma ikusteko aukera izanen da kultur etxean eta ondotik, poteoa eginen dute.

Martxoaren 8an, asteazkean, 19:00etan elkarretaratzea eginen dute eta segidan giza-kate girotua. Martxoaren 12an Bortzirietako mendi martxa feminista izanen da Arantzán, 09:00etan plazatik abiatuta.



'Sufragistas' filmaren kartela.

Josu Goiaren eskultura paratu dute herri sarreran

Josu Goia zenaren *Eskailerak ilargiruntz* eskultura da herri sarreran paratu dutena. Gilleneko bordako Carmen Galanek Etxalarko herriari dohantzan eman dio artista beratarraren eskultura hau.



ARANTXA MIKELESTORENA

Etxalarko Arkupeak elkarteko besta

Otsailaren 5ean egin zuten Arkupeak elkarteko besta. Meza ondotik, 32 lagunek bazkaria egin zuten La Basquen. Mus txapelketan Periko Berrueta eta Benantxio Elizagoien izan ziren txapeldun, Xanti Elizagoien eta Joaquin Zelaieta bigarren eta Manuel Arrosamena eta Periko Irazoki hirugarren.



744 484 361
ttipi-ttapa



BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOIA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA



TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa



USOA
Nekazari kooperatiba



T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR



MARI TX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA

Mus txapelketa eta pizza tailerra egunotan Biltokin

Ortzirale honetan jokatu da Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa eta martxoko lehen asteburuan egingen da tailerra

ANA ETA ITZIAR

Inauteriak pasa diren hontan, hasiak dira Biltoki elkartearen ere zenbait ekitaldi antolatzen. Otsailaren 24an Euskal Herriko XIV. mus txapelketako kanporaketetako bat Igantzin jokatu da. Hitzordua ortziraletan 22:00etan da eta bikote bakoitzak 20 euroren truke izanen du jokatzeko aukera.

Bertze alde batetik, martxoaren 3 edo 4an (izena ematen duen jende kopuruaren arabera erabakiko da) *Pizza erraza etxean* tailerra egingen dute elkartearen. Izena Biltokin bertan



2020ko mus txapelketako finalistak.

edota telefono hontara deituz eman beharko da: 679 87 34 92. Tailerraren prezioa 28 eurokoa izanen da bazkideentzat eta 32 eurokoa gainerakoentzat.

Musikaz alaitutako kalejira izanen da martxoaren 8an

Emakume langilearen egunaren harira, ekitaldiak antolatu dituzte herriz herri. Oraindik egitaraua zehaztu gabe baldin bada ere, Lorhazi emakume taldeak jakinarazi duenez, martxoaren 8an bertan, 19:00etan musikaz alaituriko kalejira egingen da herrian.

Eskolako ikasleen antzerki emanaldia ederra izan da

Otsailaren 17an, ortziraletan, eskolako haur eta gaztetxoak urtero egin ohi duten gisan, beraien antzerki ikuskizuna eskaini zuten herritarrentzat Baratzondon. Hainbat hilabetez eginiko lanak plazaratzeko aukera izan zuten oraingoan ere.

Iruitturrietako iturburua konpondua

Fraingo deposituak urez hornitzen dituen Iruitturrietako iturburua konpondu du udalak. Lanak Patxi Irazoki Tabernaren taldeak egin du, eta 34.787,50 euroko kostua izan du. Orain, nabarmen hobetzen da ur-bilketa, hartune zaharrak hagitz hondatuak baitzeuden.



Iruitturrietako iturburua.



ITZIAR ETA ANA

Giro ederra izan da inauterietan

Eguraldia lagun zutela giro ederrean ospatu zituzten inauteriak otsailaren 10ean eta 11n. Hainbat eta hainbat ekitaldi izan zituzten, hala nola herri bazkaria, jokoak, dantzaldia, mozorroen ibilbidea, ilunabarreko pintxoak... jubilatuek ere beraien bazkaria egin zuten Baratzondon.



ITZIAR ETA ANA

Landaketak auzolanean

Arbolak landatzeko sasoi betean gaudela eta, auzolan deialdiak izan dira Udalaren aldetik. Ilbeltzaren 28an eta otsailaren 4an Abelun egin dituzte landaketak: 200 pago eta bertako 100 haritz landatu zituzten. Eskolako haurrek, bertalde, Frainen 100 haritz amerikano landatu zituzten.



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com



F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Bortzirietako Emakumeen XIII. Mendi Martxa herrian

Martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, elkarretaratzea eginen dute 12:00etan plazan

NEREA ALZURI

Emakumearen Egunaren bueltan, Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak eta talde feministek deituta, hainbat ekimen izanen dira. Gurean, alde batetik, martxoaren 8an, 12:00etan elkarretaratzea izanen da plazan.

Martxoaren 12an, berriz, Bortzirietako Emakumeen XIII. Mendi Martxa egitekoa da eta aurten herrian izanen da. 09:00etan plazan hitzordua paratu dute mendi buelta bat egiteko. Ondotik dutxatzeko aukera izanen da. 14:00etan, Burlada jatetxean bazkaria izanen da 20 eurotan. Izena martxoaren 7rako eman behar da Berdintasun Zerbitzuan, 722 69 30 78ra edo berdintasuna@bortziriakberd.eusera idatziz.



2021eko mendi martxako irudia.

nen da 20 eurotan. Izena martxoaren 7rako eman behar da Berdintasun Zerbitzuan, 722 69 30 78ra edo berdintasuna@bortziriakberd.eusera idatziz.

Euskal Herriko Mus Txapelketa larunbat honetan

Aitzineko aldizkarian iragarri bezala, larunbat honetan, otsailaren 25ean, Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketako kanporaketa jokatu da Ekaitza Elkartearen, 18:00etan. Irabazleak martxoaren 11n Iruñean jokatu den herrialde mailako kanporaketara sailkatuko dira.

Sagardotegira irteera martxoaren 25ean

Ekaitza Elkarteak eta Arantzako Gazte Asanbladak sagardotegira irteera antolatu dute martxoaren 25ean. Egiluze sagardotegira joanen dira eta otsailaren 25etik aitzinera sagardotegira joateko txartelak ostatu eta salgai paratuko dituzte.

LINDURRENBORDA SAGARDOTEGIA

Txotx denboraldia irekia!
Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!!

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) · TEL. 948 63 72 12



51 bazkide bildu ziren otsailaren 12ko bazkarian. JOSE RAMON AMOROS

Arkupeak elkarteko herriko bazkideak giro ederrean bildu dira

N. ALZURI

Joan den otsailaren 12an, egun ederra pasatu zuten Arkupeak elkarteko herriko 51 bazkidek.

Aterpean bazkaltzeko elkar-tu ziren. Ondotik, Gregorio Mitxelenaren akordeo idoinuen laguntzaz kantari girotu zuten bazkalondoa. Mus txapelketa ere jokatu zuten eta zazpi bi-

kotek parte hartu zuten. Txapel-dunak Juan Miguel Alman-doz eta Fermin Etxeberria izan ziren eta txapel-dunorde Jabier Telletxea eta Angel Mari Pika-bea gelditu ziren. Hirugarren sarituak Felix Iparragirre eta Miguel Mari Alzuri izan ziren. Ardoa eta gazta eraman zituzten saritatzat.



JOSE RAMON AMOROS ETA TTIPI-TTAPA

Umore eta eguraldi ederra inauterietan

Mozorro Zuri gazteen eta gaztetxoaren eskeak ethez ethez eta baserriz baseri, bertso afari jendetsua, Emakumeen Afaria, klase aunitzetako mozorroak, Mozorro Zuri herri kirol saio ederra, musika, kanpoko bisitariak... Hiru egun bete izan ziren eta hiruretan gozatu zuten herritarrek.



Emakume kuadrilla josteko ikastaroan. LUCIO BERGARA



Musikari talde baten argazkia. LUCIO BERGARA

Arantzako mila bat argazki historiko artxiborako

Gartxineko Lucio Bergarak argazkilari afizionatuak XX. mende hasieran ateratako argazkiak dira

TTIPI-TTAPA

XX. mendearren hasieran Gartxineko Lucio Bergara Matxikotek ateratako Arantzako 1.035 argazki bildu dituzte Nafarroako Artxibo Nagusian. Lucio Bergara ebanista eta argazkilari afizionatua zen eta urte luzez Gartxineko ganbaran kontserbatu dituzte bere argazkiak, egileak berak utzi bezala, ganbaran eraikitako eta etxeko laborategi modura erabili ohi zuten egurrezko kaseta batean.

Gehienak taldeko argazkiak (familiak, ezkontzak, lagun taldeak), erretratuak eta ospakizunetako argazkiak (bestak,

prozesioak, komunioak...) dira, eta Nafarroako Gobernuaren hitzetan, «balio haundiko lekukotza dira Arantzako historia berreraikitzeke orduan»

Lucio Bergara 1920an Arantzako eskolako irakasle zen Felicitas Oñatibia urretxuarrekin ezkondu zen eta 1930ean Legazpira joan ziren bizitzera. 2016an Maria Rosario Alustiza Bergarak (Lucioren biloba) eta Angel Murua Inurritegi bere senarrak Gartxineko Maria Bergarekin solas egin eta argazkiak Legazpira eraman eta han garbitu, sailkatu eta eskaneatu zituzten.



Bi emakume arto tartean lanean. LUCIO BERGARA



Arantzako txistugilea. LUCIO BERGARA

EcoLabel zigilua eskuratu du Arantza Hotelak

N. ALZURI

Ia hamarraldi bat joan da Arantzako Hotelak atek zabalduz geroztik eta hainbat sari eta aitortza hartu ditu. Berriki, EcoLabel zigilua lortu du. Bortz izarreko hotelen artean, Euskal Herrian eta estatuan EcoLabel zigilua hartu duen lehenbiziko

hotela da. Ziurtagiri ekologiko hori herritarrekingurumenean eragin negatibo guttien duten produktuak eta zerbitzuak eza-gutzeko sortua da. Otsailaren 6an, Mikel Irujo gobernuko kontseilaria eta Maitena Ezkurtari turismo zuzendari nagusia hotelean izan ziren.



Gobernuko eta hoteleko ordezkariak otsailaren 6an hotelera egindako bisitan.



Mobilizazioekin segituko dutela aldarrikatu dute. AITOR AROTZENA

Mobilizazioa Lesakan osasun egoera salatzen

Otsailaren 23an Plaza Zaharrean bilduko dira 18:30ean, osasun arretaren egoera duintzea eskatzeko

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 15ean Bortzirietako osasun langileek, alkateek eta zenbait herritarrek agerrialdia egin zuten Lesakan, «eskualdeak bizi duen osasun arretaren inguruko arazo larriaz» aritzeko.

Urtarrilaren 26an egindako elkarretarazteen balorazio «hagitz positiboa» egin zuten; «izugarrizko arrakasta izan zuten, herritarren haserre eta ezinegonaren adierazle garbia». Hala ere, «osasun agintariek entzungor egitea erabaki dutela» salatu zuten, eta mobilizazioekin segitzea erabaki zuten. Hurrengo otsailaren 23an, ortzegunean 18:30ean Lesakako Plaza Zaharrean izanen da, eta herritar eta eragile guztiei parte hartzeko deia egin diete, «egoera hobetzeko mobilizatzea ezinbertzekoa baita».

Honez gain, «antzeko egoeran dauden Nafarroako beretze plataformekin» harremanetan daudela jakinarazi zuten, «eta ez dugu baztertzeko, egoerak bere horretan segitzen badu, Iruñean mobilizazio bateratu bat egiteko aukera».

Kontsultategiak irekiak

Otsailaren 13an Bortzirietako herrietako kontsultategiak ireki zituzten, «ahalik eta arretarik hoberena ematen segitu ahal izateko». Hala ere, mediku faltaren arazoak konpondu gabe segitzen duela salatu du Lesakako Osasun Zentroko zuzendaritzak; lanaldi osoan ari zen Lesakako pediatrik erretiroa hartu zuen abenduan, Berako pediatriaren lanpostuak ere (lanaldi erdikoa) hutsik segitzen du, eta Lesakako bi mediku bajaran daude eta ez dute ordezkorik bidali.

Horregatik, goizez eta larrialdietako zerbitzuetan aritzen diren medikuak txandakatuz moldatuko dira. Goizeko ordutegian artatuko dituzte gaixoak herriz herri, baina ezin izanen dituzte egunero borts herrietako kontsultategiak zabaldu: «lau mediku garazapilanpostu betetzeko».

Hitzordua hartzea nahitaezkoa izanen da 08:00etatik 10:30era, eta pediatriako zerbitzua familia medikuek ematen segituko dute, pediatriako erizainekin elkarlanean.

Beran aurkeztuko da Geuretik Sortuak proiektuaren bigarren edizioa

TTIPI-TTAPA

Udalbiltza partzuergoak antolatutako Geuretik Sortuak kultur ekimenaren bigarren edizioa hastear da, eta 2023 eta 2024 urteak hartuko ditu. Aurkezpena Beran izanen da, martxoaren 3an 11:00etan Herriko Etxeko plazan. Eguraldi txarra eginez gero, kultur etxera mugituko dute ekitaldia.

Bertan, parte hartuko duten udalerrriak iragarriko dituzte; 22 multzotan banatutako 39 herri. Gainera, beka jaso duten eta sormen egonaldiak eginen dituzten 22 sortzaileen berri

emanen dute. Aurten lau alokoretan eginen dute lan, joan den urteko literatura, zinegintza eta antzerkigintzari komikigintza gehituko baitiote. Artistek bere sorterritik at eginen dute egonaldia, eta sormen lan bat garatu beharko dute. Lan guztiekin kultur zirkuitua antolatuko dute 2024an.

Aurkezpenean solasaldia eta erakustaldi artistiko laburra izanen da, eta bukatzeko gonbidatutako ordezkari, sortzaile eta eragileekin talde argazkia eginen dute.

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak webgune berria estreinatu du

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak webgune berria estreinatu du otsailean.

Atariaren itxura berritzeaz gain, bortziritarrendako interesgarri izaten ahal diren bideo, dokumentu eta bertelako informazio batzuk para-

tu ditu eskuragarri. Euskara mankomunitateak abian dituen egitasmoen eta dirulaguntzen berri emanen dute bertan, baita Bortzirietako euskarari edo egoera soziolinguistikoa-ri buruzko datuak ere.

Webgunearen helbidea www.bortzirriak.eus da.

Bortzirietako EH Bilduren solasaldia martxoaren 10ean

EH Bilduk solasaldia antolatu du martxoaren 10ean 18:30ean Berako Kultur Etxeko erakusketagela. Bertan izanen da Mertxe Aizpurua, alderdiaren bozeramailea Espainiako Kongresuan. Aurkezle batek gidatutako solasaldi irekia izanen da eta bertan, egoera politiko orokorraz, etorkizuneko erronkez, EH Bilduren jardunaz eta maiatzean abiatuko den ziklo elektoralaz arituko dira. Gainera, Berako udal taldeak alkatetzarako hautagaia eta hautetsien zerrendaren aurkezpena eginen du.

Elkarrizaneke 2022ko balorazioa egin du batzar orokorrean

Elkarrizan nagusien elkarteko boluntarioen taldeak 2022ko datuen balorazioa egin du. 46 lagun aritu dira laguntzaile lanetan eta guztira 2.831 boluntariotza ordu egin dituzte: 62 ospitalean laguntzen, 65 etxeetan laguntzen, 3 bideo-deien bidez, 46 jubilotekan, 517 zahar etxean kantuan, 71 boluntariotzako formakuntzan, 1.618 zahar etxean paseatzen, 330 talde bileretan, 76 helduen alfabetatzean eta 21 zuzendaritzaren bideodei bidezko bileretan. Urteko balorazioa «hagitz positiboa» izan da.

Bortzirietako

HERRI-ESKOLA PUBLIKOAK



Oraina eta
etorkizuna eraikiz



1a 9.000 euroko laguntza hondakinak murrizteko

Nafarroako Hondakinen Partzuergoa Bortzirietako Mankomunitatearekin lankidetzan ari da zenbait proiektutan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Hondakinen Partzuergoak Nafarroako etxeko hondakinak kudeatzeko 15 mankomunitate biltzen ditu, guztiak Iruñerriko Mankomunitatea izan ezik. Partzuergoaren zeregin nagusia mankomunitateek biltzen dituzten hondakinak garraiatzea eta tratatzea da, baina, era berean, funtsezko zeregina du hondakinen prebentzioari eta gaikako bilketak hobetzeari buruzko komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak sustatu eta dinamizatzeko.

Ildo horretan, 2022an Bortzirietako Mankomunitateari dirulaguntza eman zion eskualdean egin ziren kanpainetan. Zehazki, honako ekin-tza hauetarako eman zuen dirulaguntza: 1.576 euro hondakinak sortzeko prebentzio kanpainetarako (*Erosketa jasangarria* izeneko kanpaina egin zen, sortzen ditugun hondakinak murrizteko ditugun aukeren inguruan informatzeko eta sentsibilizatzeko helburuarekin); 1.576 euro materia organikoaren gaikako



Prebentzio kanpaina.

bilketari buruzko komunikazio kanpainetarako (bortzirietar guztiei gutun pertsonalizatuak bidali zizkieten) eta 5.844,53 euro materia organikoari laguntzeko. Hirusta Servicios Educativos enpresaren bidez, laguntza agente batek sortzaile handiak bisitatu ditu, hala nola, ostatuak, jatetxeak edo elikagai dendak, haiei laguntzeko eta materia organikoaren bereizketa errazteko.



Eneit Bertiz garaile Volcat Platja D'Aro proban. AMAIA APEZETXEA

Garaipen handia lortu du Eneit Bertiz txirrindulariak nazioarteko proban

MAIDER PETRIRENA SUNBILLA

Junior mailan, mendi bizikletako Nafarroako eta Euskadiko txapeldun izan zen iaz Eneit Bertiz Apezetxea sunbildarra, Katea Bike taldearekin. Aurten, UCI taldea den Saltoki-Conor taldearekin hasi da, ezin hobeki gainera. Otsaileko lehenbiziko asteburuan Katalunia-

ko Platja D'Aron jokatu-tako Volcat Platja D'Aro UCI proban garaile izan zen junior mailan, larunbateko nahiz igandeko probetan nagusitu ondotik. Aipagarria da kategoria guztietako 200 txirrindulari baino gehiagoren artean hamalau-garren izan zela Eneit Bertiz. *info + 51. orrialdean*

Arkupeak elkartekoek besta martxoaren 5ean

Sunbillako Arkupeak Elkarteak jubilatuen urteko besta, datorren martxoaren 5ean izanen da. Apuntatzeko epea otsailaren 26a bitartekoa izanen da eta Juan Antoniori edo Jesus Mariri aipatu behar da. Arizti-gain kanpinean mus txapelketa eta bazkaria izanen dute.

Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketako herriko kanporaketa

Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketako herriko kanporaketa otsailaren 24an, ortziralean, 21:30ean hasita jokatu dute Ulibeltzak elkarteak. Izena ematen duten bikoteen arabera, txapeldunak edo bi finalistak joan dira Nafarroako txapelketara.

JOSENEA ZONE AUTO

GARBIKETA ZENTRO BERRIA AUTOZERBITZUA DANTXARINEAN

Lavandería Autoservicio Laundry

MERKATUKO MAKINARIK BERRIENAK

- * 2 garbigailu 8 kilona arte
- * 2 garbigailu 14 kilona arte
- * 4 lehorgailu 14 kilona arte

PREZIO ONEAN

Ordainketa: **Speed Access** app-aren bidez egin daiteke

+34 948 599 236 • www.josenea.es • centrauto@josenea.es
Egunero 7/7 irekita, 08.00 - 20.00

Josenea Zone Auto (Dantxarineko mugan) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarinea Nafarroa.

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

Martxoaren 4an eta 5ean Baztan-Bidasoko stock feria

Eskualdeko 20 komertzioz parte hartuko dute eta hainbat produktu mota izanen dira eskuragarri

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoko merkatariak stock edo salgaien azoka egiten dute borzgarrenez. Aurtengoan, gainera herrian izanen da, Ezkurra pilotalekuan. Azoka martxoaren 4an eta 5ean izanen da, larunbatean eta igandean.

Larubatean 10:00etatik 20:00etara egonen da irekia Ezkurra pilotalekuan eta igandean 10:00etatik 19:00etara. Denok Bat merkatarien federazioak antolatu du azoka, Doneztebeko Udalaren laguntzarekin.

Ondoko merkatariak hartuko dute parte azokan, tartean, baita herriko hainbatek ere: Aloa kirolak, A.P Amaya Picabea, Argibel optika, Artlepo-Onddo ta punto, Arturo, Bixkiak, Calzados Virgilio oinetakoak, Expert Bortzirriak, Fantxike arropa eta opari denda, Igone liburu denda eta paper denda, Jaurena elektrogailuak, Jostaldi, Kattagorria, Kukuka haur arropa denda, Maite moda, Martzutzak, Oinatz, Olatz zapata denda, Ortzadar eta Xulu fraia.



ERREKA K. E.

Errekako mutilak txapeldunen fasean

Lehen fasea multzoko hirugarren akitu ondotik, txapeldunen fasea jokatu du Errekako gizonezkoen eskubaloi taldeak. Indarrak hartzeko afaria egiten zuten. Emakumeak ere ederki ari dira eta bigarren garaipena lortu dute azken postua ekiditeko borrokan.

Etxebizitza egoerari buruzko inkesta egin du Malerrekako Ernaik gazteen artean

TTIPI-TTAPA

Malerrekako 19 eta 29 urte bitarteko gazteek etxebizitzarekin duten egoera eza-gutu nahian, inkesta bat egin du Ernaik. Emaitzen arabera, % 48k aitortu du lanean ari dela eta % 22ak ikasten eta lanean. Emantzipatu nahiko lukeen gazte kopurua altua da, % 80koa, hain zuzen, baina % 14ak baino ez du lortu. Horien artean %15ak dirulaguntza bat hartu du eta %50ak soldata finkoa du. Gainerakoan, bi herenak ezagun bati esker lortu du etxebizitza.

Etorkizunera begira, % 55ak hemendik hiruzpalau urtetara emantzipatua egonen dela uste du, eta herrian edo eskualdean gelditu nahiko luke % 90ak. Hala ere, lautik hiruk uste dute ez dutela hemen emantzipatzeko aukerarik izanen.

Jardunaldia Donamarian

Honekin lotuta, Baztan-Bidasoko Ernaik landa eremuaren etorkizuna bermatzeko dinamika abiatua du, eta martxoaren 18an Donamarian egiten du lehenbiziko jardunaldia.

Prestaketa eta enplegu tailerrak apirilatik irailera

Malerrekako Mankomunitateak eta Nafar Lansareak prestakuntza eta enplegu tailerra antolatu dute apirilaren 1etik irailaren 30era. 796 orduko ikastaro presentziala izanen da, 07:40etik 15:00etara. Bertzean atean, lorezaintza eta pintura landuko dituzte, eta formakuntza gehigarria ere eskainiko dute.

Interesdunek Doneztebeko enplegu agentzian eman dezakete izena. Parte hartzeko, Nafar Lansarean lan eskatzaille gisa izena ematea beharrezkoa izanen da.

Malerrekako Garbigunea martxan da otsailaren 6tik

Doneztebeko industrialdean, Leitzarako bidean dagoen Garbigune berria otsailaren 6an paratu zuten martxan, eta honako ordutegia du: **aste-lehenetan** 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:00etara. **Ortzegunetan** 15:30etik 19:00etara. **Hileko bigarren eta laugarren larunbatetan** 09:00etatik 14:00etara. Informazio gehiago nahi izanez gero, Mankomunitateko hondakinen teknikariarekin jarri behar da harremanetan (687 54 39 90 telefonoa edo josebasanchez.luar@gmail.com).



Etxetresnak
Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak



☎ 948 450 925 ☎ 624 47 57 25
Amezti zeharkarria, 1 • DONEZTEBE

www.electrodomesticosmiguelena.com



Pulunpa eskolako ikasleak artzainen museoaren atarian. **ESKOLAK UTZIA**

Elgorriagako museoa bisitatu dute Pulunpakoeak

Luzio Irisarri eta Tomas Ibarra artzainen eta Angie Otxandorena eta Nieves Biurrarena senideen azalpenak entzun zituzten

ARKAITZ MINDEGIA

Inauterietako ortziralean egun polita pasatu zuten herriko haurrek. Goizetik eguerdi bitarte ekitaldiz bete zuten; mozorroei azken ukitua eman, 6. mailakoen antzerkia (bertsolaritzan landutako Amaur antzerkizana), herriari buelta, bazkaria eta disko festa. Joal-dunak ibili ziren eta aurrean aukeratutako gaia Ameriketako artzainak izan zen.

Aukeratutako mozorroaren harira, eskolan lanketa berezia egin dute gelaz gela. Ikasle aunitzen familiako norbait beraien gazte garaietan sor-

terria utzi eta Ameriketara joan zen lanera. Batzuk bueltan etorri eta bertze batzuk han gelditu ziren. Lanketa borobiltzeko Elgorriagako Euskal artzainen museora egin zuten ateraldia. Bigarren mailatik goitiko ikasleak oinez joan ziren. Angie Otxandorena eta Nieves Biurrarenak azalpenak eman zituzten eta Luzio Irisarri eta Tomas Ibarra artzainen bizipenak adi entzun zituzten, museoko orgaren ondoan. Hunkitzeko momentuak izan zituzten hizlarien solasekin, baita bertan dauden argazkiak ikusita ere.



UTZITAKOIA

Nafarroako IX. Trikiti jaialdian

Urtarrilaren 28an Burlatako kultur etxean ospatu zen Nafarroako IX. trikitixa jaialdia. Oholtza gainean Euskal herriko hainbat trikitilari eta pandero jotzaile aritu ziren, tartean Arkaitz Mindegia eta bere lagunak. Aurkezle lanean Alazne Untxalo herritarra aritu zen, Sarai Roblesekin batera.



UTZITAKOIA

Basurde ehizan bikain

Uso ehiza akitu ondok herriko ehiztariak asteburuko basurde ehizara joaten dira. Batzuetan beraiekin batera lau hankako animalia ekartzen dute eta bertzetan berriz esku hutsik bueltatzen dira. Azken aldia zorteko daude eta basurde dexente bota dituzte.



Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armaia eta malformazioak
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbenzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507



CASA PUNTOS
ARMERIA Y TALLER
SINCE 1885

ARMA-DENDA ETA TIRO GALERIA

www.casapuntos.com armeriacasapuntos 618 68 98 55
Pol. Ind. Cordovilla Parcela 3, Nave 4. 31191 - Cordovilla - Nafarroa



Tailer edo ikastaroetan parte hartu zuten 144 erabiltzailek iaz. ARTXIBOKOA

1.820 bisita izan zituen iaz errotako ekomuseoak

2021eko kopurua (934) bikoiztu du eta pandemia aurreko kopuruetara hurbildu da

FERMIN ETXEKOLONEA

Nafarroako Museoek 269.876 bisita izan zituzten iaz, 2021ean baino % 25,05 gehiago.

Museo-zentroek publiko-datuak biltzeko sistema bera erabiltzen dute; sistema horrek bereizten ditu bisitaria (erakusketetara joateko zentroetara sartzen den pertsona) eta bisita (zentro bakoitzeko erakusketa iraunkorrek eta/edo aldi baterakoak jasotzen dituzten bisitak). Erabiltzaile terminoarekin adierazten da zer pertsonak parte hartzen duten museo-zentroak eskaintzen duen beste edozein zer-

bitzutan (tailerrak, ikastaroak...).

Bereizketa horiekin, Zubietan, errotako ekomuseoak 1.820 bisita izan zituen iaz (58 bisita urtarrilean, 74 otsailan, 213 martxoan, 139 apirilean, 218 maiatzean, 190 ekainean, 95 uztailan, 289 abuztuan, 209 irailean, 183 urrian, 105 azaroan eta 47 abenduan). 1.035 bakarkako bisitan joan ziren, 526 eskolako bisitan eta 259 bestelako taldeko bisitetan. Erakusketak ikustera sartu ziren 289 bisitari izan ziren eta tailerretan parte hartu zuten 144 erabiltzaile.



IBON ERRAZU URIA

Patxi Mindegia II. Euskal Duetloian

II. Euskal Duetloiko kanporaketa jokatu zen otsailaren 11n Azpeitiko zezen-plazan eta Patxi Mindegia herritarrek 38 segundogatik ez zuen lortu martxoaren 5ean leku berean eginen den finalerako txartela. 17 minutu eta 40 segundo behar izan zituen lana bukatzeko.



ADOS PILOTA

Etxekolonea final laurdenetan

Finalerdietarako zuzenean sailkatzerik lortu ez badu ere, Ados pilota elkarteak antolatutako binakako txapelketako final laurdenetan ariko da Naroa Etxekolonea, Mujikarekin bikote eginez. Hau idazterakoan oraindik ez dakite zein izanen duten kontrario.

LIZUN
GAZTANDEGIA
Sunbilla · Tel: 948 450 862

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL
Iturrumunubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hartzklinika.es
@liderahortzklinika

BORDAKO
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Ainhoa Alzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com



Joan den urtean 20.000 bisitari baino gehiago izan zituen Leurtza inguruak.

Enpresa publiko batek kudeatuko du Leurtzako urtegia

Beintza-Labaien eta Urrozko udalek hartutako erabakia jendaurrean ikusgai dago oraindik

TTIPI-TTAPA

Leurtzako urtegiak aisialdirako natur eremua ustiari, kudeatu, mantendu eta zainduko duen enpresa publikoa eratzeko lehen urratsa eman dute Beintza-Labaien eta Urrozko udalek. Hain zuzen, bi udalek batzarrean hartu zuten erabaki hori eta erabakia otsailaren 2ko Nafarroako Aldizkarian argitaratu eta jendaurrean ikusgai jarri dute. Hilabeteko epea dute herritarrek alegazioak aurkezteko.

Jon Telletxea, Beintza-Labaiengo alkateak aipatu digunez, «kontuak eramateko eta fiskalitate aldetik dauden arazoak konpontzen lagunduko ditu enpresa publiko honek. Abokatu talde batekin eta Nafarroako Gobernuako Ingurumen departamentuko teknikariek egon eta ikusi dugu nola egin zitekeen».

Izan ere, Leurtzako natur gunearen kontabilitatea Urrozko udalak eramaten zuen orain arte eta «bi herrien kontuak pixko bat nahasten zituen eta lan-karga bat eragiten zuen. Orain, enpresa publiko berriarekin, udalen kontuetatik in-

dependente izanen da. Dirulaguntzak ere zuzenean kudeatuko ditu enpresa horrek eta udalen bizkar gainetik kenduko du zama hori».

Beintza-Labaiengo alkateak gogoratzen duenez, 2020ko udazkenean ehun ibilgailurendako aparkalekua egin behar izan zuten bi udalek, Leurtza ingurura hurbiltzen zen jendetzak autoa uzteko lekua izan dezan. «Pandemia garaioa izugarria izan zen—dio Telletxeak—momentu kritikoak ere izan ziren, kotxeak bide bazterrean utziak eta larrialdi baterako ez zuten anbulantzia bat edo suhiltzaileen kamioi bat pasatzeko lekurik uzten».

Ondotik, proba pilotu gisara bertze aplikazio bat ere martxan jarri zen joan den urtean, aparkatzeko lekua erreserbatzeko eta kudeatzeko, Aste Santutik hasi eta udazkenera bitarte martxan izaten dena, «gehiagizko masifikazioa izan ez dadin». Garai horretan bi herrietako langileak izaten dira ingurua zaintzen, «normalean bizpahiru, baina izan dira lau langile ere izan ditugun garaiak».

Ezkurrako inauteriak otsailaren 25ean ospatuko dituzte

JAIONE ZABALO EZKURRA

Egun ofizialen ondotik, otsailaren 25ean ospatuko dituzte inauteriak Ezkurran, gure inguru honetako azkenak. Otsailleko azken larunbatean, goizeko hamarretan hasita, etxez etxe herrian ibiliko dira kalejiran. 17:00etan hasita base-

rrietako buelta egingen dute eta ordu berean, frontoian, Disko-txiki-festa egingo dute eta txokolatea banatuko dute. Inauteriak bukatzeko, triki-ber-tso afaria izango dute Barranka jatetxean, Maddalen Arzallus eta Aitor Mendiluze bertsolariekin.



Kuadrilla ederra ibili zen inauterietan. IZASKUN BERTIZ

Giro ezin hobean ospatu dituzte inauteriak Beintza-Labaienen ere

A. ITURRALDE ETA I. BERTIZ

Otsailaren 10-11ko asteburuan Beintza-Labaiengo inauteriak ospatu zituzten. Ostiral gauean herriko elkarteetan afaria egin zuten.

Larunbatean, berriz, egun osoko besta izan zuten. Goizetik herriko gazteak elkarteetan bildu ziren gosaltzeko. Gosaldu ondotik, mozorroturik goiz osoan etxez etxe puxkak biltzen ibili ziren, gazte, haur eta gurasoak, denak batera giro ederrean, Saldiasako Ainara trikitilariarekin. Karroza batzuk ere egin zituzten. Gazteek, 25 bat lagunek, Labaiengo ostatuan bazkaldu zuten eta haur eta gurasoek, berriz, Beintzako aterpetxean. 53 lagun elkartu ziren denera.

Arratsaldean Beintzan ibili ziren etxez etxe, denak elkarrekin. Ondotik, udalak gonbidatuta, haurrek, gurasoek



Karrozak ere atera ziren. I. BERTIZ

eta nahi zuten herritarrek txokolatea hartzeko aukera izan zuten Beintzako ostatuan. Bitartean gazteak baserritara joan ziren.

Afaria Ittur-Ondon

Ittur-Ondo elkarteetan afaria izan zuten gauean eta ospakizunak ordu txikiak arte segitu zuen, animazio ederrekin. Eguraldiak lagundu zuen eta giro paregabea izan zen inauterietako egun osoan.

Eguzki energiaren instalazioan
espezialistak gara.

TRES60

SOLAR

TRES60

**Energia fotovoltaikoko eta energia eraginkortasuneko lanak
egiten ditugu profesional talde kualifikatuarekin**

DENA GURE ESKU

Proposamena eta aurrekontua konpromisorik gabe.

Gure ingeniarien bisita hartuko duzu, zalantzak argitzeko eta autokontsumoari buruzko azalpenak hartzeko. Zure etxebizitzako instalazioa nolakoa izanen den jakiteko azterketa. Instalazioaren zerbitzua osorik egiten dugu: zure beharretara egokitutako azterketa eta diseinua, martxan paratu, tramitazioa eta legalizazioa.

Instalazioak etxebizitzetan, komunitateetan, enpresetan, erakundeetan...



DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntzen, kenkari fiskalen eta eskura dituzun gainerako laguntzen tramitazioa eta aholkularitza.

FINANTZIAZIOA

Zure beharren arabera, zure instalazioa finantzatzeko aukera. Hamar urtera arteko finantziakzioa. Galdetu konpromisorik gabe.

KONPENTSAZIOA

Soberakinen konpentsazioa ziurtatua. Zure energia argindar sarera bideratzeak konpentsazio ekonomikoa izanen du.

MONITORIZAZIOA

Zure instalazioaren funtzionamendua monitorizatua denbora errealean. Kontsultatu kontsumoa zure mugikorretik.

GARANTIAK

12 urteko garantia.
Lehen mailako fabrikatzaileekin lan egiten dugu: Fronius (inbertsorea), JA solar (eguzki plakak), Sunfer (egitura) eta BYD (bateriak).

ZERBITZU TEKNIKOA

Aurrekontua onartu ondotik, instalazioa bi eta lau asteren barrenean.
Instalaziorako gure ekipoak, bitartekaririk gabe. Salmenta ondorengo zerbitzu tekniko propioa. Momentu oro ingeniariarekin harremanetan.



644 60 18 78

info@solartres60.com

Poligono industrial La Barrena, C. Canal de Navarra. TUTERA



Otsailaren 1ean egin zuten Merkataritza Erakarpen eta Antolamendurako Planaren aurkezpena Donezteben. ALICIA DEL CASTILLO

Merkataritza antolatzeko plana aurkeztu dute

Baztan, Bortzirriak, Bertizarana eta Malerrekako merkataritza erabilera antolatu, arautu eta sustatu nahi dute

TTIPI-TTAPA

Merkataritza sektorearen egoera ikusiz, eta honek eskualdeko sozio-ekonomian duen garrantzia kontuan hartuta, azken urteetan hainbat bilera egin dituzte Denok Bat Federazioa, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako lau merkatariekarte, Cederna Garalur eta udal ordezkarien artean. Ondorioetako bat eskualde mailako lanketa eta hiri antolamenduaren bidez merkataritza erabilera antolatu, arautu eta sustatuko duen Merkataritza Erakarpen eta Antolamendurako Plan (MEAP) baten beharra izan da, Xanti Utergak, Doneztebeko udal zinegotziak otsailaren 1ean Malerrekako Mankomunitatearen egoitzan egindako aurkezpenean azaldu duenez.

Horregatik, 2020 hondar aldera Arantza, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Eratsun, Etxalar, Ezkurra, Igantzi, Ituren, Lesaka, Oiz, Saldias, Urroz eta Zubietako udalek tokiko administrazio-arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, MEAP bat

egiteko eskualdeko merkataritza indartzeko neurriak proposatzeaz gain Nafarroan merkataritza arautzen duen Foru Legean ezarritakoa betetzeko helburuarekin.

Deñe Abuinek aipatu zuenez, «3-4 urteko elkartasun lanaren ondorio izan da eta merkataritza eredu honen babes politikoa garrantzitsua da. Hau epe luzerako lana da, pozik eta motibatuta gaude merkataritza, mahaiak sortuko dira plana martxan jartzeko».

500 inkesta baino gehiago

Sektorearen argazkia ateratzeko 2021eko udazkenean 452 etxebizitzetan inkestak egin ziren eta ostalaritza, zerbitzu eta merkataritzako 79 establezimendu inkestatu ziren. Bailararen arabera ihes egiten duen kontsumoaren portzentajeak hauek dira: Bor-

SEKTOREA AZTERTZEKO 500 BAT INKESTA EGIN DITUZTE

tzirietan kontsumoaren %20,9ak ihes egiten du, gehienbat Irun aldera, eta Baztan eta Malerrek hurrenez hurren % 15,9 eta % 16ak gehienbat Iruñera ihes egiten du. Produktuen arabera, elikagai eta drogeriaren kasuan ihes maila % 10,6an kokatzen den bitartean, ekipamendu pertsonalean %42,3koa da. Gisa berean, ihes egiten duenaren % 10a Internet bidezko erosketak dira. Gazteen artean ihes maila handiagoa da.

Datu hauei buruz egiten den berteze irakurketa, bailara bakoitzak duen atxikipen maila duina da, Bortzirietako herri-tarren kasuan, banaz berteze, gastuaren % 74,6 Bortzirietan bertan egiten da, baztandarren kasuan gastuaren % 81,3 bailararen barnean gelditzen da eta Malerreka eta Bertizaranaren kasuan % 78,2. Portzentaje hauei gehitu behar zaie norbere bailaran ez, baina eskualdetik atera gabe egiten den gastua.

Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu bilakaerari dagokionez, gehienak Elizondon, Donezteben, Lesakan eta Beran kokatzen dira eta 2012-2020 urteen bitartean enpresa kopurua hurrenez hurren % 17,61, % 5,36, % 9,02 eta % 12,42 jautsi da. Establezimendu jabeen adinari dagokionez, % 38k 55 urte baino gehiago ditu eta horien erdiak ez du erreleborik aurreikusten. Hala ere, bezeroek merkataritzari ematen dion balorazioa hagitz positiboa da, 8,1ekoa.

Jarduerak

Ekintza planak 5 ardatz, 10 lerro eta 16 ekintza proposatu ditu. Lehenengo ardatza Merkataritza-plangintza, antolaketa eta hirigintzaren baitan lehengo ekintza MEAPak proposatzen dituen irizpide eta oinarri juridikoak 17 udalen Hirigintza Plan Orokorretan barneratzean datza. Bigarren lerroaren baitan eginen diren ekintzak hirigintza paisaiaren, hiri-ekipamenduen eta irisgarritasun ta atsegintasunaren ingurukoak dira. Bigarren ardatzak animazio eta dinamizazioa lantzea du xedea, eta hiru ekintza garatuko dira: komunikazio eta sentsibilizazioa, Giltzaria fidelizazio txartelaren indartzea eta partekatutako egitarau soziokulturalaren koordinazioa eta gogoeta. Hirugarrenak sektorearen lehikortasuna indartu nahi du, hala nola, digitalizazio estrategia baten bidez, lehiakortasunaren hobekuntza eta negozio eredu berri-kuntza ekintzak antolatu dira eta ardatz honen 3. lerroaren barne, 4 ekintza hauekin arlo hauek hobetu nahi dituzte: bezeria eta segmentuak, salgaien banaketa jasangarria, Top-toparen birkontzeptualizazioa eta enpresen arteko lankidetzaren bidez. Laugarren ardatzean, ekintzailatza eta jardueraren jarraipena landuko dira, merkataritza suspertzeko ekimenen bidez eta enpresa transmisioa erraztuz. Bosgarrena gobernantza eta elkarte sarearen ingurukoak da.

«Euskara praktikatzeko espazio segurua ematea du helburu ekimenak»

XABI IRIARTE IBARROLA SOLASLAGUNA EGITASMOKO KOORDINATZAILEA

Euskal Herriko bertze hainbat lekutan bezala, Euskaltzaleen Topaguneak Solaslaguna egitasmoa martxan du Baztan-Bidasoan. Iriarte koordinatzailearekin ekimenari buruz aritu da Ttipi-ttapa

R. OSKARIZ

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi eta maite duen gaztea da Xabi Iriarte Ibarrola (Doneztebe, 2000). 2022ko irailetik Euskaltzaleen Topaguneak sortutako Solaslaguna egitasmoaren koordinatzailea da.

Zer da Solaslaguna egitasmoa?

Solaslaguna Euskaltzaleen Topaguneak sortutako Mintzalagun egitasmoaren parte da. Honen helburua euskara ikasi edo praktikatu nahi duten pertsonen hau egin ahal izateko aukera eta espazio seguru bat eskaintzea da.

Zein dira zure ardurak?

Koordinatzailearen arduren artean, taldeen koordinazioa, egitasmoaren komunikazioa eta ekintza osagarrien antolaketa daude, bertzeak bertze. **Nola funtzionatzen du egitasmoak?**

Parte hartzaileak taldeak elkartzen dira, eta hauek pertsona bakoitzaren lehentasunen arabera sortzen dira, herria eta ordutegia kontuan hartuz. Astean behin ordubetez elkartzen dira taldeak adostutako zerbait egiteko, poteatzeko, adibidez. Bilera hauek euskaraz praktikatzeko tarteak dira partaideentzat. Taldeak 5 edo 6 pertsonakoak izatea komeni da, partaide guztiek solastatzeko aukera izan dezaten. Bi rol desberdin daude: Bidelaguna eta Bidelaria. Bidelaguna euskaraz ongi dakien pertsona da eta



Solaslagunako dinamizatzailea da Xabi Iriarte joan den urtetik. UTZITAKOIA

bilera dinamizatzeke eta gainerako taldekideei laguntzeko dago. Bidelaria, aldiz, euskara praktikatu nahi duen pertsona da. Talde bakoitzean Bidelagun bat dago eta gainerakoak Bidelariak dira.

Noiz abiatu zen ekimena eskualdean?

Malerrekan, Bortzirietan eta Baztanen 2007an sortu zen Solaslaguna, euskara praktikatu nahi duten pertsonen

lagun arteko espazio seguru eta goxoa izan dezaten.

Eta zenbat talde dituzue gaur egun?

Egun, bederatzita talde daude martxan, eta bertze bat antolatzen ari gara. Baztanen eta Bortzirietan hiruna talde ditugu, Malerrekan, berriz, bi. Guztira, 48 lagunek parte hartzen dute egitasmoan, horietatik zazpi bidelagunak dira eta gainontzekoak bidelariak.

«**TALDEETAN
BIDELARIAK ETA
BIDELAGUNAK
IZATEN DITUGU**»

«**PROBATUTA,
GEHIENEK
ERREPIKATU
EGITEN DUTE**»

Nolako emaitzak ikusi dituzue bidelarien artean?

Hasieran lotsa izaten dute, zerbait gaizki errateak beldurtzen dielako, baina akatsen bat egiten badute taldekideek beti errespetuz zuzentzen eta laguntzen diote elkarri. Dinamika hau aukera arras ona da sinonimoak eta euskalkiak ikasteko, eta arras polita da bidelagunen artean elkar elikatu egiten direla ikustea.

Taldeen bilerez gain, bertzelako ekitaldiak ere egiten dituzue?

Bai, asteroko bilerez gain, noizbehinka ekitaldi bereziak antolatzen ditugu; mendi irteerak, bazkariak, bisita gidatuak... eta bestelako ekitaldiak.

Nola ikusten duzu euskararen egoera Baztan-Bidasoan?

Zorionez biztanle gehienek euskaraz badakite, baina egia da herriaren arabera euskararen erabilpena baxua dela, gazteen artean gehien bat.

Eta kanpotik etorritakoek euskara ikasteko ahalegina egiten dute?

Solaslagunako partaideen kasuan, erakutsi duten gogo eta ilusioak asko harritu nau, eta euskara ikasteko erakusten duten interesak asko pozten nau.

Nola animatu daiteke jendea horrelako ekimenetan parte hartzera?

Ekintza osagarriak irekiak dira, egitasmotik kanpo dauden pertsonak ere joan daitezke. Hau arras aukera ona da mintzapraktika probatzeko, eta probatu ondotik gehienek errepikatzen dute.

Zein asmo dituzue etorkizunera begira?

Egitasmoa indartzea da gure helburu nagusia. Horretarako, ekintza osagarri gehiago egingen ditugu, taldeak indartzeko eta eragileekin harremanak sendotzeko.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Euskara ikasteko gogoia duten pertsonen animatzeko erran nahi diet, Solaslagunak euskara lagun artean eta giro goxoa praktikatzeko aukera eskaintzen baitu.



Lesakako osasun zentroaren atarian egindako elkarretaratzea. AITOR AROTZENA

Bortzirietako osasun egoerarekin kezka du elkarteak

Egoera hau lehenbailehen konpontzeko neurriak har ditzala eskatu dio Nafarroako Gobernuari

TTIPI-TTAPA

Bortzirietan lehen arretako osasun zerbitzuen egoerarekin duen kezka publikoa egin nahi du Arkupeak elkarteak. Urteko lehen asteetan, Bortzirietako bizilagunek lehen mailako mediku kontsulta bat lortzeko, Lesakako Osasun Zentrora joan behar izan dute. Badirudi orain, berriz ere herrietako mediku kontsultetan hasiak direla artatzen, baina egoerak kezagarria izaten segitzen du.

Herrietan medikurik ez izateak urduritasuna eta beldurra sortzen du, bereziki adineko

pertsonengan eta egoera honi erantsi behar zaizkio Lesakaino joateko zailtasunak.

Arkupeak elkartetik Nafarroako Gobernuari dei bat egin nahi diote egoera hau lehenbailehen konpontzeko neurriak har ditzan.

Norvegiako fiordoak

Norvegiako bidaiarako bilera informatiboa egin zen Doneztebeko zinean otsailaren 9an. Kruzeroan eginen den bidaiaren honetarako jendea gogotsu dagoela nabari da, bilerara interesatu gehienak etorri zirelako.

Elkarterako laguntzaile berria behar dute Irunen, Lorenzo Alagonen ordez

TTIPI-TTAPA

Azken urteetan Irungo laguntzaile izan den Lorenzo Alagon Peinadok laguntzaile izateari utzi dio. Egindako lana eskertu dio Arkupeak elkarteak eta bere hutsunea betetzeko norbait beharko dutela gogorazti dute.

Beraz, Irungo Arkupeak elkarteak laguntzaile izan nahi duenak bere burua aurkeztu beharko du posturako apirilaren 18a baino lehen. Horretarako, elkartera deitu beharko du, 948 45 08 78 telefonora, edo Doneztebeko bulegora azaldu.



Otsailaren 12an Arantzan jokaturako mus txapelketako hiru bikote onenak.

Herriz herriko bazkari eta mus txapelketekin ari dira elkarteak

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala elkartearen herriz herriko bestak eta mus txapelketak egiten ari dira. Berakoek otsailaren 12an egin zuten Zalain jatetxean. Argazkian ageri denez, Arantzan ere otsailaren 12an egin zuten ospakizuna, Aterpe jatetxean. Bazkal ondoko mus txapelketan, txapelidun suertatu ziren Juan Migel Almandoz eta Fermín Etxeberria, finalean Jabier Telletxeari eta Angel Mari Pikabeari irabazita. Hirugarren postua Felix Iparragirrek eta Migel Mari Altzurik eskuratu zuten.

Donezteben larunbatean bazkaria eta martxoaren 4an mus txapelketa

Aitzinera begira, asteburu honetan Doneztebeko txanda izanen da. Otsailaren 25ean, larunbatean, Belarra jatetxean eginen dute bazkaria eta mus txapelketa, berriz, martxoaren 4an Shanti 2.0 ostatuan.


Martxoaren 5an Sunbillakoek eginen dute mus txapelketa eta bazkaria Ariztigain kanpian.

Beintza-Labiengoak eta Saldiasakoak martxoaren 5ean elkartuko dira Labaiengo ostatuan.

Doneztebeko Juanito Estanga lehiaketan garaile

Osasuna futbol taldeko entrenatzailea nor eta noiztik den zen galdera. Erantzuna: Jagoba Arrasate, 2018tik hona. Irabazlea Doneztebeko Juanito Estanga Elizalde izan da. Hurrengo galdera: *Inguruko zein hedabidek bete ditu berriki 25 urte?* Erantzunak 618 56 78 37 zenbakira.





NI PUBLIKOKOANAIZ

SORTU NAHI DUZUN ESCOLA

• HURBILA

Etxetik bertara eta doako eskola-garraio segurua bermatuta. Hurbiltasunean heziz.



• TEKNOLOGIKOA, BERRITZAILEA ETA IKERTZAILEA

Ikasleei gaitasun digitala garatzen eta ikaskuntza-prozesuan teknologia era berritzaile, kritiko eta seguruan erabiltzen lagunduz; paradigma-aldaketa bat non pizkanaka ezartzen ari diren ikasNOVA ikasgeleek erantzuna ematen laguntzen duten. Etorkizunera begiratzen duena saiakuntzen bidez –robotika, ikerketako eta nazioarteko batxilergoak– STEM bokazioak sustatuko dituzten metodologia aktibo berrien bidez ikasketak.



• BIKAINA

Ikasketek bakoitzean neurria egindako prestakuntza duten dozentarik onenak eta hezkuntza-programa aitzindariak dituen –jurraldeko irakasle-ikasle ratioarik onena 1.000 ikasleko 110 irakaslerekin–, funtsezko gaitasunen ikaskuntza xede dutenak, curriculum-ikuspegi malgu eta deszentralizatuarekin.



• ERABATEKOA

Zere seme-alabekin batera hazten den hezkuntza –Orik 18 urtera bitarteko sarea–, pertsona bakoitzari egokitzen zaiona eta hezkuntza-ziklo guztiak barne hartzen dituena.



• ELEANITZA

Edozein hizkuntzatan ikasketak aukera ematen duena –programa eta eredu elebidunak eta hirueledunak (gaztelania, euskara, ingelesa, frantsesa, alemana)–.



• INKLUSIBOA ETA ANITZA

Inor kanpoan uzten ez duena. Haurren eskubideak eta ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak integratzen dituena. Premia bereziak dituzten ikasleentzako egituren sare zabala duena, baliabide profesional eta teknikarik onenak dituen ikasle guztien erabateko garapenean hezkuntza-parekidetasuna ziurtatzeko eta guztiak berdinak eta aldi berean ezberdinak egiten gaituenak.



• ERALDATZAILEA

Metodologia aktiboan aldeko apustua egiten duen hezkuntza, hezkuntza-sistema publikoa eraldatzen duena, non zuk eskola eraiki eta etengabeko ikaskuntza-komunitatea sortzen duzun.



• OSASUNGARRIA

Elikadura eta osasunean heziz –bertako produktuekin eta kilometro zero produktuekin egindako menu osasungarriak eskaintzen dituzten jangelak, in situ dauden sukalde propioekin– eta bertako produktu freskoekin.



• PARTE-HARTZAILEA

Zuk eskola eraiki eta komunitatea sortzen duzu –partekatutako heziketa, jarduera kultural, departibo eta sozialak–.



• BERDINTZAILEA

Berdintasuna garatzeko hezkidetzako-balioetan hezten duena, ikasketxeetan genero-baldintzarik ez duena.



nipublikokoanaiz.nafarroa.eus



Goiz bakarrean elikagai asko bildu zituzten eskolan. UTZITAKO ARGAZKIA

Elikagai bilketaren erantzun ona nabarmendu dute

Turkian eta Sirian izandako lurrikaretan kaltetutako errefuxiatuei laguntzeko elikagai bilketa egin dute eskolan

TTIPI-TTAPA

Egunak pasatu dira Turkian eta Sirian izandako lurrikaretan kaltetutako errefuxiatuei laguntzeko asmoz, Erleta eskolan elikagai bilketa egin zutenetik, baina erantzun ederra izan zuen, eta halako elkartasun keinuek merezi dute aipamena.

Eskolako zuzendaritzako kidea den Iker Urkiolak ere «herriarren parte hartze haundia» nabarmendu nahi izan du: «bilketa oso positiboa izan zen. Eskola komunitatetik kanpoko herritar askok erantzun zuten». Are gehiago, azken momentuko zerbait izan zela kontuan hartuz: «Zaporeak elkartekoak ostegun goizean jarri ziren gurekin harremanetan, bihar-munean bilketa egin nahi zutela esanez. Antolatze oso denbora gutxi izan genuen, baina izan genuen tarterako, oso positiboa izan zen eta Zaporeak elkartekoak ere oso ongi baloratu dute. Beraien asmoa zerbait sinbolikoa egitea zen, baina azkenean oso bolumen haundia hartu zuen».

Europara ailegatzen diren errefuxiatuei janari duina eskaintzen dien irabazi asmorik

gabeko elkartea da Zaporeak, eta Turkian eta Sirian ezbeharrek gertatu zirenetik, hango errefuxiatuen guneetan lurrikarek utzitako ondorio larriek erantzuteko hainbat elikagai bilketa egin dituzte Euskal Herriko bazter askotan. Horietako bat izan da Leitzakoa.

Hasiera batean, Amazabal institutura jo zuten elkartekoek, eta deialdia eskolara zabaltzea erabaki zuten. «Baiezkoa esan genuen eta biltzeko eskolako jangela erabiltzea aproposagoa zela ikusi genuen, espazio aldetik zabalagoa delako eta herritarrentzat errazagoa delako».

Ez da bi ikastetxeen artean halako elkartasun keinua izan dutenaurreneko aldia. «Nafarroa mailan elikagaien bankurako bilketa egin zenean ere parte hartu genuen», kontatu du Urkiolak. «Normalean bilketa horiek ostiraletan eta larunbatetan izaten dira, baina guri aste guzian biltzeko aukera izan genuen».

Eta guztia herritarrei esker. Horregatik, elikagaiak ematera hurbildu ziren herritarrei «eskerrak» eman nahi izan dizkie Erletako kideak.

Emakume migranteen begiradari buruzko argazki erakusketa Torrean

TTIPI-TTAPA

... eta bidean Irun, begirada bat bidean doazen emakumezkoen. Horixe da Gari Garaialde argazkilariak osatu duen argazki erakusketaren izenburua. Garaialde Irungo Harrera Sareko kidea ere bada eta Irundik pasatako emakume migranteen argazkiekin erakusketa osatu du, bidean doazen emakumezkoen errealitatea erakusteko asmoz. Gisa horretara, pertsona horiek, migranteek, izen eta abizenak dituztela ikusarazi nahi izan du.



Otsailaren 8an ireki zuten erakusketa.

Egun hauetan Torrean ikusgai daude erakusketako argazkiak. Otsailaren 8an zabaldu zuten eta oraindik ikusi ez duenak martxoaren 10era arte izanen du aukera.



Makilak eskuetan hartuta, jende asko animatu zen otsailaren 4an. JULIAN ZABALETA

Santa Ageda bezperako hitzordua bizi-bizirik dago

JUAN MARI BARRIOLA

Usadio zaharra da Santa Ageda bezperako ospakizuna, herritarrek bizirik mantentzen dutena. Halaxe izan da aurten ere. Otsailaren 4a, larunbata izanik, jende asko ibili zen makilak eskuetan hartu eta kantuan. Egunez, ume txikiak gurasoekin ibili ziren eta

gaztetxoak, berriz, beraien aldetik kuadrillatan banatuta etxez etxe kantuan ibili ziren.

ALKE kultur taldeak iluntzean egindako hitzorduan ere ez zuten hutsik egin herritarrek. Jende dezente hurbildu zen eta giro ederrean ibili ziren musikarien laguntzarekin koplakantari.



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad
www.kulturkari.com

Etiketak eta pegatinak

Paperean edo biniloan (opakua edo gardena)

Bobinan edo soltean, formarekin moztuak...

'Irati' filma ikusteko aukera martxoaren 4an eta 5ean

Sarrerak udalaren webgunean eros daitezke: kultur bonuarekin 4,5 eurotan, online bost eurotan eta leihatilan sei eurotan

TTIPI-TTAPA

Hainbat sari jaso dituen eta Goya sarietan ere hautagai izan den Paul Urkijoren *Irati* film ezaguna herrian ikusteko aukera izanen dute leitzarrek. Eneko Sagardoi, Edurne Azkarrate eta Itziar Ituño aktoreen filma izanen da martxo hasie-

ran Herri Aretoko zinema eskaintza. Martxoaren 4an eta 5ean, 19:00etako saioetan emanen dute. Larunbatekoa azpigituluekin izanen da.

Sarrerak dagoeneko salgai daude *leitza.eus* atarian. Bonua dutenei 4,5 eurotan aterako zaie sarrera, online hartzen

dutenek bortz euro ordaindu beharko dituzte eta leihatilan hartuta sei euro.

Ez da asteburu horretako pelikula bakarria izanen. 16:30eko saioan *Yuku eta Himalayako lorea* ikusteko aukera izanen da. Bonua dutenek 3,50 euro ordaindu beharko dute, sarrerak online hartuta lau euro eta leihatilan bost euro.

Antzerkia

Lerro hauek idazterakoan Emakumearen Nazioarteko Egunako egitaraua osatu gabea zuten, baina martxoaren 12rako antzerki bat dagoeneko hitzartua dute. Madrilgo Teatro en Vilo konpainiak *Hoy puede ser mi gran noche* antzezlan egi-

nen du, 19:00etan Herri Aretoran. Emakumeen Eguneko ekitaldietako bat izanen da eta aldi berean martxoaren 27a Antzerkiaren Nazioarteko Eguna dela gogoratu nahi dute. Sarrerak *leitza.eus* atarian eros daitezke. Sarrerak online zazpi eurotan daude eta leihatilan erosten dutenek zortzi euro ordaindu beharko dituzte.

Zinema gehiago

Ohi bezala, hilabeteko hirugarren asteburuan zinemak hartuko du protagonismoa Herri Aretoran. Martxoaren 18an eta 19an, 16:30eko saioan Labur birako film bat ikusgai izanen da eta 19:00etako saioan *Almas en pena*.



MIEL M. ELOSEGI IRURTIAK UTZITAKOA

25 urteren buruan '40 ordu' filmeko taldea elkarrekin

40 ordu filma berriz ikusteko aukera izan zuten otsailaren 11n Herri Aretora hurbildu zirenek. Jendearen erantzuna ikusita, emanaldi bakarria egin beharrean, bi egin zituzten. Pelikulan parte hartu zuten herritarrek biltzeko aprobetxatu zuten.

Julen Olano Euskal Duetloiko finalerik kanpo

Aurreneko aldiz Euskal Duetloian parte hartu du Julen Olano herritarrek. Otsailaren 11n Azpeitian egindako kanporaketan aritu zen, baina ezin izan zuen finalera sailkatu: finalean sartzetik 38 segundora gelditu zen.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kanttonberri, 1 | BERA

☎ T. 948 631 218

✉ joxemi@kateabike.com

🌐 www.kateabike.com

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa - Euskal Sagardoa

🍏 Sagardo ekologikoa

🍏 Sagardotegiko menua

🍏 Asteartetik larunbatera afariak, ostiralean, larunbatean eta igandeaz bazkariak

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.

Egiten ditugun lanak:

Fabaden konponketak, segurtasun-sistemen instalazioak, teilatuen eta azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

☎ 948 031 174

✉ info@anelan.pro

Medikuaren etxe zaharra erosteko eskaintzak 28ra arte

Erosleak beheko solairua gehi bi altuerako bi etxebizitza libre egin ahalko ditu gehienez

TTIPI-TTAPA

Medikuaren etxearen salmentaren aurreneko enkantea hutsen gelditu ondoren, udalak enkante berri baten prozedura hasi du, balorazio berriarekin. Erosleak beheko solairua gehi bi altuerako bi etxebizitza libre egin ahalko ditu gehienez eta lanak eskriturak sinatzen direnetik gehienez ere bi urteko epean hasi beharko ditu.

Prezio berria 89.064,41 eurotan finkatu du udalak, zergak aparte utzita. Hortik aurrera, prezioa gorantz hobetu ahal izanen da eta udalak ez du



Medikuaren etxe zaharra.

onartuko lizitazio-oinarri horren azpiko eskaintzarik. Eskaintzak otsailaren 28rako aurkeztu beharko dira, udal bulegoan, 09:00etatik 12:30era.



FELIX LOIARTE

Santa Ageda bezperan koplak kantari

Makilak eskuetan eta herriko trikitilariek lagunduta, Umore Ona abesbatzako kideak oles egitera atera ziren otsailaren 4ko iluntzean, Santa Ageda bezperan. Aurten hamabigarren aldia zuten eta 25 lagun inguru elkartu ziren. Tartean, Josu Garmendia *Xolomo* eta Manolo Arozena aritu ziren koplatan.

Mendialdeko Pilota Txapelketako finalak asteburuan

Pilotariek atsedenik gabe segitzen dute. Alde batetik, asteburu honetan, Mendialdeko Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte. Bestetik, larunbatean, hilak 25, Espainiako txapelketako partidak jokatuko dituzte Umore Onakoek. Barañainen ariko dira, Lagunak-en aurka.

'Bertso afari independentea' martxoaren 3an

Herri Kazetaritza Independentearen ekimenez, *Bertso afari independentea* antolatu dute martxoaren 3an Oxeguarda jatetxean. Mikel Altzuart, Xabier Silveira, Julen Zulaika eta Ricardo Glz de Durana bertsolariak ariko dira kantari. Izen ematea: info@independentea.eus.



IGARATZA APEZETXEA

Iberon barrena Leitzara

Otsailaren 11n Leitzara joan ziren Arainburu Mendi Taldeko kideak. Plazan elkartu eta Iberotik Galbano aldera joan ziren. Garai bateko kontrabandisten bideetan barrena, borda zaharrak eta ur jauzi eta paisaia ederrak ikusi zituzten. Iñaki Etxeberriak bideo polita osatu du ibilbideko irudiekin (ERRAN.EUSEN ikusgai).



FERNANDO GOIA

Salaberria eta 'Txurri' nagusi musean

Bost bikotek parte hartu zuten otsailaren 11n Umore Ona Elkartearen jokatu zuten Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketan. Horien artean Miel Salaberria eta Joakin Solano *Txurri* nagusitu ziren, eta hala, beraiek izanen dira martxoaren 11n Iruñean egitekoa den Nafarroako finalean ariko direnak.

Mus txapelketako Aresoko finala igande honetan

Martxoaren 11n Iruñean jokatzekoa den Nafarroako finalerako herriko ordezkariak izendatuko dituzte

ENERITZ IRAOLA ARESO
Euskal Herriko Mus Txapelketako beste hitzordu bat jokatu dute asteburu honetan Sastinean. Muslariak otsailaren 17an jokatzekoa zuten lehenbiziko kanporaketa, eta igande honetan, otsailaren 26an, herriko ordezkariak era-

bakitzeko finala izango da. 11:30ean egin dute hitzordua. Irabazleek martxoaren 11n Iruñean jokatu den herrialde mailako finalerako txartela lortuko dute. Euskal Herri mailako finala, berriz, martxoaren 25ean Zornotzan (Bizkaia) egitekoa da.

Pellejero ez da sailkatu Euskal Duatloiko finalera

Otsailaren 11n Euskal Duatloiko kanporaketa jokatu zuen Asier Pellejerok Azpeitian. 20 minutu eta 48 segundo behar izan zituen etzanda 45 ontzako bi enbor mozteko, korrika bikilometro egiteko eta 45 ontzako bi enbor zutik mozteko. Finaletik kanpo gelditu zen.



Pellejero korrika. IBON ERRAZU URIA



SUSANA LASARTE

Aresoko ikasleak Piraten Etxean

Pasaiako Piraten Etxean egon ziren Aresoko Nazabal eskolako ikasleak eta irakasleak pasa den otsailaren 9an eta 10ean. Pirata ausartenen antzera, aboradatzea egin, itsasontzian ibili, altxorra topatu... primeran pasa zuten eskolako kanpaldian.



Izer eta Alabierren doinuekin zomorroak dantzan ibili ziren. OHIANA KALPARSORO

Giro eta eguraldi ederrarekin ospatu dute inauteri eguna Aranon

AINHOA ANSA ARANO
Karnabal eguna Aranon goiz argitu zen. Zortzietarako aurreneko zomorroak Suron elkartzen hasi ziren eta eguraldi bikainarekin abiatu ziren. Baserriz baserri, auzoz auzo, trikitixa eta panderoa lagun eta kornetak joaz, 15:30ak aldera ailegatu ziren herrira.

Ohituraz horrela ez bada ere, herrira ailegatzean egin zen zahagi dantza (gazteek hala erabakita) eta ez arratsaldean. Zomorroen bazkaria soziedadean izan zen zahagi dantza bukatzean eta afalgaraira arte luzatu zen bazka-

londoa. Afaltzeko herri guztia zegoen gonbidatua, nahiz eta ohitura baino lagun gutxiago gerturatu.

Antolatzaileek eskerrik onena luzatu nahi izan diete laguntzen aritu diren guztiei, bereziki gazteei. Orain, karnabalen balorazioa egin behar delako aurreratu dute, aldatu beharrekoak aldatu eta indartu beharrekoak indartzeko. Hala ere, data horren berri aurrerago emanen dute eta afari batekin osatua egon daiteke.

Gora zomorroak eta gora herriko inauteriak!



UTZITAKO ARGAZKIA

Santa Ageda bezpera Areson

Aresoko Guraso Elkarteak antolatutako hitzorduarekin bat eginez, makilak eskuetan hartu eta koplak kantari ibili zen argazkiko kuadrilla otsailaren 4an. Ikus daitekeen bezala, aresoarrek aurten ere ez dute hutsik egin Santa Ageda bezperan.

95 milioi euro Belateko tunel berria egiteko

Txibite Nafarroako Presidenteak lanen lizitazioa iragarri du eta 45 hilabeteko epea aurreikusi dute, ia lau urte

TTIPI-TTAPA

Belateko tunel berriaren lizitazioa iragarri zuen otsailaren 8an Maria Txibitek, 95 milioi euroko inbertsioarekin. Nafarroako presidenteak azpimarratu du tunelen bikoizketa izanen dela Nafarroan azken urteotan egin den bide lanik garrantzitsuen eta konplexuen. 45 hilabete beharko dira lanak egiteko, ia lau urte.

N-121-A errepidearen segurtasuna hobetzera bideratutako lana izanen da, «duela 25 urte tunelak ireki zirenean, Belatek urruntzen zituen bi aldeak hurbilago izatea lortu zen eta orain, beharrezko segurtasuna eta bermea areagotzea lortuko dugu, behar-beharrezkoa den komunikazio-arteria hori mantentzeko, Iruñea eta ipar isuria ez ezik, Europarekin zuzenean lotzen baikaitu».

Lizitazio-aurrekontua 95 milioikoa. Hor sartzen dira, bertzeak berte, hondeaketa-lanak (35 milioi), euste-lanak (16 milioi), estaldura-lanak (10 milioi) eta segurtasun-instalazioak (7 milioi).

Tunel berriak ia hiru kilometro luze izanen du (2.885 metro). Bi tunelak lotzeko bertz emergentzia-galeria izanen ditu, erdikoa emergentzia ibilgailuendako eta bertze laurak oinezkoendako, ibilgailu arinendako sarbidearekin.

Tunelaren bikoizte-lana lehen fasea izanen da. Ondotik Almandozko tunel berria egingen dute, bi tunelen arteko zatia eta, azkenik, gaur egungo tunelak moldatzea. Denera 180 milioi euroko inbertsioa egingen da eta lanaldi osoko 2.500 lanpostu sortuko ditu.

N-121-A errepideko lanak

2+1 errepide bihurtzeko lanak 2021ean hasi ziren. Lehenbiziko 17 kilometroak bukatuak daude dagoeneko, Ezkaba-Olabe eta Olabe-Lantzartean. Orain, Oronoz-Mugairi eta Sunbilla arteko zatia egiten ari dira. Almandoz eta Oronoz-Mugairi arteko lizitatzeko dago oraindik eta Sunbilla eta Enderlatsa arteko azken zatiari zein soluzio eman aztertzen ari dira oraindik, bertako udalekin elkarlanean.



LIERNI OTEIZA

Ornoz-Mugairiko inauteriak giro ederrean

Urtarrilaren 26tik 28ra ospatu zituzten inauteriak ornoztarrek eta inoiz baino gazte gehiago ibili ziren eskean, herriko baserri eta etxeak alaitzen. Arront giro ederrean ibili ziren Arantzako Andoni Mitxelena akordeoilariak lagunduak.

Baztan Ikastolak beldurrari buruzko solasaldia antolatu du martxoaren 14an

TTIPI-TTAPA

Baztan Ikastolak hauren beldurrari buruzko solasaldia antolatu du martxoaren 14an 17:00etan Arizkunenean. Alvaro Beñaran psikomotrizista eta pedagogo izanen da hizlaria eta haurraren garapenean beldurrak duen zentzuari bu-

ruz, beldurrei aurre egiteko tresnei buruz eta helduen jarrerak, jokabideak eta zalan-tzak duten eraginari buruz arituko da.

Izena emateko eskuragarri daude idadkaritza@bazzani-kastola.eus e-Posta eta 948 45 24 48 telefonoa.

Herencias y Gestión

Zuregandik hurbil gaude

Mugaz gaindiko herentzien onarpena

Gizarte segurtasunaren pensioen eskaera

Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com



MUGARKI

ESKALATZEKO ZENTROA BAZTANEN



315 m²ko EREMUA

- Boulder gunea, blokeko eskalada egiteko.
- 4,5 metroko altuera
- Zintzilikatzeke 18 gune eta bi autoaseguratzaille dituen eremua
- Beroketak, ariketa zehatzak eta bertzelako jokoak eta jolasak egiteko gunea

Hainbat jarduera aukeran, beti lantaldearen arretarekin eta aholkularitzapean

Haurrendako, gazteendako eta helduendako urteko ikastaroak
Astean egun bateko edo biko ikastaroak
Eskaladako bataio tailerrak edo hastapen ikastaroak
Eguneko sarrerarekin eskalatzeko aukera
Abonatuz gero, edozein momentutan eskalatzeko aukera





Hainbat lekutako esne ekologikoko ekoizleak elkartu ziren topaketan. AITOR AZKARATE

Behi-esne ekologikoaren topaketa Anizen

Galiziako, Asturiasko, Kantabriako, Kataluniako eta Euskal Herriko 25 esne ekoizle bildu ziren otsailaren 4an eta 5ean

TTIPI-TTAPA

Behi-esne abeltzaintza ekologikoaren V. topaketa egin dute aurten Anizen. Larunbat goizean debate tailerra izan zuten eta hainbat gai landu zituzten: esnearen komertzializazioa, transformazioa, behien elikadura nola osatu... Mendiarte elkartean bazkaldu ondotik Jauregia Esnekiak bisitatu zuten. Etxaldea ezagutu ondotik, duela bi urte azken topaketan eraturako AGALVE elkartearen lehen batzarra izan zuten. Eguna akitzeko afaria egin zuten Lesakako Linddurrenborda sagardotegian.



Jauregia Esnekiak bisitatu zuten.

Igandean INTIAk Orreagan duen Aspace Biointegra proiektua bisitatu eta asteburuan landutakoaren ondorioak auzokomunean jarri zituzten. Bazkalondoan akitu zen topaketa.



ELIZONDOKO ESKOLA PUBLIKOA

Urteko lehen hazia Elizondoko eskolan

Abenduan Eguzki zaharra agurtu eta Eguzki berriari ongi etorria eman zioten Elizondoko eskolan, eta orain lurra ernatzeko garaia dute. Baratzte inguruan bildu dira eta aitzurrekin lurra kolpatuz, Amalurrari dei egin diote kantari. Ondotik, ikasle bakoitzak aitzinerago zainduko duen hazia erein du.

Sahararren aberri eguna ospatuko dute ortziralean Elizondon

TTIPI-TTAPA

Saharaztan Baztan-Bidasoko elkarteak sahararren aberri eguna antolatu du aurten ere, otsailaren 24an Elizondon.

Lehenik Sahararren askatasunaren aldeko elkarretaratzea egingen dute plazan 19:00etan. Ondotik, *Sahrawi lives matter*

dokumentala proiektatuko dute Arizkunenean 19:30ean. MGLTEko kide den Joseba Alzueta nafarraren erroka kontatzen du dokumentalak; Saharako herriaren egoerari ikusgarritasuna emateko 460 kilometroko ibilbidea egin zuen lasterka Iruñetik Madrilera.

Oharriz Auzoa z/g - LEKARAZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
BIZITZA ERREKONSTRUKTIOA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Sartu
gure web-orri berrituan
WWW.SILOTITE.COM



www.silotite.com

Bazkak nutriente
gehiagorekin izateko

Silo bolak egiteko plastikoak

Produktu berria, orain merkeagoa!
750mm zabal, 1800m luze

- Edozein belar klasetan erabilgarria
- Aukeran 500 mm eta 750 mm-tan
- Zulatzeke gogorra eta tiratzerakoan sendoa
- Elastikotasun ezin hobea
- Memoria elastiko bikaina
- Ongi itsasten dena
- Baldintza atmosferiko guztietan erresistentzia onekoa eta UV egonkortasun handikoa
- Ingurumenarekin erasokorra ez den plastikoa



SILOTITE

Silotite®. Segurtasunaren aukera



AROZ-BERRI, S.A.

Pol. Zaldubia NA-8307, km 0,8 - 31730 IRURITA (Nafarroa)

Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - irurita@arozberri.com

www.arozberri.com



Pozueta, Aznal eta Baztango alkate eta zinegotziak. NAFARROAKO EH BILDU

Nafarroako EH Bilduren bisita zaharren egoitzan

Estatuko Aurrekontuetan 4 milioi euroko partida lortu dute zentroko lanak egin ahal izateko

TTIPI-TTAPA

Bel Pozueta EH Bilduren Espainiako kongresuko ordezkaria eta Laura Aznal Nafarroako presidentetzarako EH Bilduren hautagaia Elizondoko Zahar etxean izan ziren urtarilaren 31n, bertako alkate eta zinegotziekin.

Egoitzan eginen den proiektua ezagutu zuten, eta balioan jarri zuten «Madrilen gure taldeak egindako negoziazioari esker Estatuko Aurrekontuetan sartutako 4 milioi euroko partida». Lortutako dirua «zentroa adinekoen ongizatea eta hurbiltasuna ardatz dituen

eredura egokitzeko» erabiliko dute, eta «eskualde osoari emanen dio zerbitzua».

Honez gain, «badakigu adinekoek nahiago dutela beren etxeetan egon, eta erakundeetatik aukera hori eskaintzeko beharrezko neurriak bermatu behar ditugu». Horregatik, «Foru Gobernuarekin negoziatu ondotik alderdiak Nafarroako Aurrekontuetan sartzea lortu duen milioi bat euroko partida» nabarmendu zuen Aznalek. «Etxez etxeko arreta-zerbitzua indartzeko balio du, eta zerbitzu hori asteburuetan ere emanen da».



Baztango hainbat realzale eta bi jokalarik bildu ziren inaugurazioan. ONDIKOL

Baztandarrak Realarekin peña inauguratu dute Elizondon

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 9an Baztandarrak Realarekin peña inauguratu zuten Elizondoko Antxitonea trinketean, taldearen egoitza izanen den ostatuan.

Guillermo Quartier da peñako presidentea, eta bailarako hainbat realzale bildu ziren inaugurazioan, baita Jon

Pacheco Realeko jokalaririk elbetarra eta Juan Maria Amiano, Realean aritu zen azken jokalaririk baztandarra.

Giro ederra izan zuten inaugurazioan eta peñak bufanda bana eman zien bi jokalariei. Trukean, Pachecok bere izena zuen kamiseta oparitu zion presidenteari.

Zapatillarak musika egiteko espazioa erabiltzera gonbidatu ditu musikariak

TTIPI-TTAPA

Zapatillera proiektuko kideek adierazi dutenez, «dagoeneko hilabete batzuk pasatu dira Elbeten Zapatillera martxan dagoenetik. Espazio hau bertako musikariek entseatu ahal izateko gune baten beharretik sortu da. Hortaz, gon-

bita luzatzen dizuegu musika egin nahi duzuen talde edo bakarlariei bertara hurbildu eta espazioa erabiltzeko. Hurbildu, ikusi eta probatu».

Harremanetarako eskuragarri dute 665 88 02 20 telefono zenbakia.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatu
Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...
T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com
LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

BRIKO BAZTAN, SL
Drogeria - Garbiketa produktuak
Feretaria - Sukaldeko tresnak
Mozorroak - Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda - Oinetakoak
Laneko arropa - Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak - Poltsak eta mailetak
Etab.
T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

KULTURKARI
Dizainu grafikoak | Publikatzen
www.kulturkari.com
Panelak
Aluminioa, PVC edo metakrilatoa
Neurrira eginak, formarekin moztuak, formatu handiak, iraukorrak...



Mozorroz jantzita atera ziren herritarerak desfilean. UTZITAKOA

Giro ederrean ospatu dute Gizakunde Arizkunen eta Erratzun

TTIPI-TTAPA

Jo ala jo kultur taldeak eta Erratzuko elkarteak Gizakunde besta antolatu dute aurten bertze behin, otsaileko lehenbiziko larunbatean.

Aurten, Arizkunen hasi zuten besta eguerdian; 25 lagun inguru bildu ziren Gamioxarrean bazkaltzeko. Bazkalondoan prestaketak hasi eta mozorrotu egin ziren, eta ilunabarrean herriko plazara abiatu ziren. Bertan, antzerkiarekin hasi zen ospakizuna; joaldunak, damak, sagar dantzariak, hartza eta hartza zaina, mozorro zuriak

eta mozorro beltzak izan ziren bertan eta ikuskizun ederra egin zuten.

Desfilea Erratzura joan zen gaineko bidetik, eguraldia lagun zutela eta ilargi betearen eta suen argipean. Herriari itzulia egin zioten, eta ondotik Jantziloren epaiketa izan zuten. Urteko arazoak leporatu zizkieten Jantzilori eta herritarrek sua eskatu zuten, beraz, herriko plazan erre zuten. Ospakizuna akitzeko, 55 bat lagun Erratzuko elkarteant bildu ziren afaltzeko eta besta gau osora luzatu zuten.

'Baztan herri hezitzailea' proiektua martxan

«Hezkuntzaren arloa modu zabalean landuko duen elkargunea sortzea» du helburu proiektuak

TTIPI-TTAPA

Baztango Udala eta Oinherri Herri Hezitzaileak sustatzeko elkarteak lankidetzan aritu dira hondar bi urteetan, eta 2023an ere gaia berrartzeko prozesua martxan paratu dute. Horretarako, «hezkuntzaren arloa modu zabal batean landuko duen elkargunea» osatzea erabaki dute, Baztango ikas-tetxe, guraso elkarte, udal eta herrigintzako eragileekin. Fase berria hasteko, hiru saio egingen dituzte.

Hiru batzar

Lehenbizikoa otsailaren 2an egin zuten, eta «herriko hezkuntza arloaren argazki bat egitea» izan zuten helburu. Hezkuntza modu integral batean ulertuta, Baztanen gaurgero egiten diren egitasmoak zerrendatu eta identifikatu zituzten. Gainera, egitasmo hauek aitzinera eramaten dituzten eragileak eta haien arteko elkarlanak aztertu zituzten. Saio arrakastatsua izan zen, 10 eragile eta 20 lagun inguru bildu ziren eta «elkarlaneko ilusio giro ederra» sortu zen.



Lehenbiziko batzarreko irudia.

Bigarren batzarra martxoaren 2an izanen da, eta bertan «hezkuntzarako herri estrategia» garatuko dute. Helmuga konpartitu batera ailegatzeko elkarrekin dituzten erronkak identifikatu eta lehentasunak adostuko dituzte.

Hirugarren batzarra apirilaren 20an izanen da, eta bertan «Baztango hezkuntza elkargunea ezaugarritu» egingen dute, berteak bertze, elkargunea, maiztasuna, funtzionamendua eta elkarrekin egin ditzaketen ekintzak. Gainera, 2023/24 ikasturtean martxan hasteko plangintza definituko dute.

Elkargunea osatuta, «berau sustatuko duen talde eragilea» egituratuko dute.

<h1>OTEIZA</h1> <p>ARKITEKTOAK</p> <p>665 71 56 96 - 943 42 52 43</p> <p>www.oteizaarquitectos.com</p>	<p>Apote Karrika 8 (Maskonea) 31730 - Irurita (Baztan)</p> <p>Askatasunaren H. 7 - 7ºE 20004 - Donostia</p> <p></p> <p></p>
---	---

 <h1>ZIGA</h1> <p>ELEKTRIZITATEA</p> <h2>647 77 31 33</h2> <p>Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean</p>		
---	--	---

Inauteriak Zigan, Arraiozen, Elbeten eta Azpilkuetan

Otsaileko bigarren asteburuan giro ederra izan dute lau herrietako inauterietan

TTIPI-TTAPA

Hemen dugu mozorroak ateratzeko garaia, eta Baztango hainbat herritan ospatu dituzte dagoeneko inauteriak. Urtarrilean Anizen, Berroetan eta Oronoz-Mugairin izan ondotik, otsaileko bigarren asteburuan Ziga, Arraioz, Elbete eta Azpilkuetaren txanda izan zen.

Giro goxoa izan zuten lau herrietan eta gisa guzietako mozorroekin soinean, etxez etxe eta baserriz baserri ibili ziren eskean, musikaz lagunduak.



Giro polita izan zuten Azpilkuetan.



Azpilkuetarrek ez zuten irudimen faltarik izan mozorrotzean. NAIARA ARIZTIA



Elbetearrek ere mozorro koloretsuz bere zituzten karrikak. ELI BARRENETXE

KOMUNAK

- % 20

BEHERAPENAK

- % 15

- % 30

- % 70

ARROPA

ZERAMIKA

ALMACO Eraikuntzako materialak

Santiago 93, 31700 Elizondo

www.almacobaztan.com

Tel. 948 580 104



Zigako eskolako ikasleek Orakunde ospatu zuten ortzegunean. ARANTXA GAMIO



Haurrak herritik barna mozorrotuak ibili ziren Arraiozen. NEREA MORTALENA



Zigatar gazteek ere ederki pasatu zuten asteburua. ARANTXA GAMIO



Afari ederra egin zuten arraioztarrek eguna bukatzeko. NEREA MORTALENA

ELIZONDO
IKASTETXE PUBLIKOA
 948 58 18 08
 cpelizond@educacion.navarra.es

Aurrematricula:
Martxoaren
6tik 10era

Ate irekiak
 otsailak 28
 17:00etan sazetelamiaz
Martxoak 3
 17:00etan euskaraz

Elikagaien xahuketa murrizteko ekimenak emaitza onak

Bortz hilabetetan 676,6 kilo fruta eta barazki bildu dituzte egoera ekonomiko ahulean dauden familien artean banatzeko

TTIPI-TTAPA

2021ean Baztango Gizarte eta Hondakin Zerbitzuek elikagaien xahuketaren kontrako ekimena abiatu zuten, eta Nafarroako Gobernuko Hondakin Funtzari esker, hozkailu-izozkailu bat erosi zuten, «hondakin prebentzioa bultzatu eta elikagai bankuak eskaintzen zituen elikagaiez gain, janari freskoak banatzeko». Komertzio, elkarte eta partikularrekin elkarlanean elikagaien bilketa hasi zuten.

Barrutia 12 harategiarekin abiatu zen proiektua iaz, eta «zaborretara joatekoak ziren kilo batzuk probeste» lortu zuten, «aunitz eskertu zuten familia batzuen bidez». Abuztuan Ze goxoa fruta-denda ekimenera batu zen, eta Baztango Talde Ekosozialaren baratz kolektiboko soberakinekin eta partikularrek emandakoarekin batera, bortz hilabetetan 676,6 kilo fruta eta barazki bildu zituzten. Honez gain, apirilean Baztanen gazte topaketa izan zen, eta soberan gelditu zen janaria Gizarte Zerbitzuetara eraman zuten.



Bildutako elikagai fresko batzuk.

Familiendako laguntza

Ekimenak, hondakinak murrizteaz gain, «errenta baxua dela-eta egunerokoan produktu freskoak eskuragarri ez dituzten familiei elikagai osasuntsuak kontsumitzeko aukera» ematen die. Gainera, «hondakin prebentzioak uraren eta energiaren kontsumoa eta kutsadura murrizten» laguntzen du.

Udalak eskerrak eman dizkie ekimenean parte hartu duten denda, partikular eta eragileei, eta «janaria xahutzen duten gainerako establezimendu eta erakundeak (komertzio, ikastetxe, zahar-etxe, jatetxe, etab.)» ekimenearekin bat egitera animatu dituzte.

Giro ederra izan da herriko ihauterietan hiru eguneko programarekin

ARANTXA ETA IRAIA

Joan den urteko egoera bereziak ihauterien programa bi egunetara murriztu bazuen ere, aurtengo gogoz txalotu dute berriro ere usaiako programarat itzultzea herritar guztiak. Aipatzekoa da ihautelari guztiak, egunez herriko benta, etxe eta base-

rrietan ibili ondotik, Gaiñara elkartearen elkarte zirela, denak bat egin eta gau luze bati hasiera emateko Beñat Mitxelena akordeoilariaren musikarekin batera. Aurtengo zapora gozoa oraindik ahoan dugula, heldu den urtekoen zain egotea bertzerik ez da gelditzen!



Montes Solidarios elkarteko kideak lezean izan ziren bisitan. UTZITAKOA

Aniztasun funtzionala duten pertsonen bisita izan dugu lezean

ARANTXA ETA IRAIA

Otsailaren 5ean aniztasun funtzionala duten bi pertsona Ikaburuko lezeetan egon ziren bisita egiten Montes Solidarios elkartearen eskutik. Horretarako, ELA gaixotasuna zuen pertsona batek Joëllette aulkia erabili zuen (edozein lurretan erabil daitekeen gurgildun

aulkia) eta ikusmen urritasuna zuen pertsona batek nora-bide barra izeneko tresna erabili zuen. Lehen aldia izan zen herriko lezeetan aniztasun funtzionala duten pertsonak sartu zirela eta poz handiz hartu zuten bisita. Poztekoa da herriko turismoa denei egokitze aukera izatea.


TXIMISTINDAR
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK





Zalain Ind., 42 Bera.
 048 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 50 65

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN
 Jarrai gaitzazu!



facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa



 MATEHEA • ERBETEGIA
 Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com



Akuler karrika, 12
 31711 Urdaizubi-Urdax (NAFARROA)
 +34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Baserritar jantziak hagitz ongi saltzen dira urte osoan»

DEÑE ABUIN ARRASATE
KATTAGORRIA - LESAKA

Duela 33 urte ireki zuen Abuinnek Kattagorria mertzeria Lesakan; «ama izan nintzen, eta askatasun haundiagoa izateko autonomo egitea erabaki nuen». Geroztik «erabat» aldatu da denda; «lokal ttiki batekin hasi nintzen, gero ondoko denda hartu nuen eta denborarekin pareta bota eta ttikia ere berreskuratu dut». Baina lokala ez da aldatu den gauza bakarra: «gaur egun gune komertzial gehiago daude eta Interneta ere hor dago. Horregatik da hain garrantzitsua udalek sinatu duten MEAPA (30. orrian informazio gehiago) komertzio ttikien bizirauteko. Gu ere gizarteari egokitzen saiatzen gara, adibidez, fidelizazio txartelarekin eta Toptopa webgunearekin». Baserritar jantziak dira gehien gustuko dituenak; «urte osoan hagitz ongi saltzen dira; Eguberrietarako, inauterietarako, herriko bestetarako...».



«Denentzako irisgarritasuna da gure helburua»

AINHOA AGUIRRE LASA
ZUGARRAMURDIKO LEZEA

«Lurrazaleko gune karstiko ikaragarria» da Zugarramurdiko lezea. «honen kudeaketak, Sorginen Museoarekin batera, tokiko garapen iraunkorrean aitzinera egiteko aukera ematen digu». Azken 15 urteetan, «esperientzia turistikoaren ildotik produktu erakargarriak sortzen aritu gara, herriaren historia eta nortasuna errespetatuz. Gainera, bertze profesionalekin lanean aritzen gara, eta erakusketa, solasaldi eta kontzertuak programatzen ditugu. Etengabeko ikaskuntza honek erne mantentzen gaitu eta gure lana aberastu». Lezearen helburua «denentzako irisgarritasuna» da; «laster webgunean aurkeztuko ditugu landutako hobekuntzak». Gainera, Aste Saindurako *Abentura mitologikoa Zugarramurdin* ekimena prestatzen ari dira familia guztiarendako.



«Bailarako familiek gure instalazioez gozatzea nahi dugu»

MARILO CARRILLO OTEGI
IRRISARRI LAND - IGANTZI

Martxoaren 18an irekiko dute Irrisarri Landen 10. denboraldia; «irrikitan gaude, hamar-kada honetan aunitz ikasi dugu eta ilusio haundiarekin ari gara dena prestatzen». Bailarako herritarrek «instalazioez gozatzea» nahi dute; «horretarako, familia bonua sortu dugu borts kiderentzako. Pasearekin nahi dutelarik etorri eta ur jolasetan aritu, jolastokian jostatu eta gure ibilbideez gozatzen ahalko dute». Gainera, «aurten berrikuntza bat prestatu dugu, arborismo ttikiko zirkuitua 3 urtetik goitikoentzat». Denboraldia abendu bukaerara arte luzatuko da; «asteburu eta jai egunetan irekiko dugu, eta uztailean eta abuztuan hilabete osorako. Bisitariak ongi pasatzea, deskonektatzea eta etxera pozik bueltatzea da gure nahi nagusia».



«Ez dut uste paperezko liburua galduko denik»

PATRICIA ERRANDONEA ASTONDOA
IGONE - BERA

Familia negozioa da Igone paper-denda; «1977an ireki zuen amak eta duela bi urte lekukoa hartu nuen. Hala ere, etxeko negozioa izanda beti lagundu diogu, hemen hazi izan gara». Hasieran «papertegia eta liburuak saltzen zituen, gero diru-zorroak eta larruzko produktuak sartu zituen, joko hezigarriak eta panpinak... poliki-poliki eskaintza zabaldu eta obrak egiten denda haunditu genuen». Salmentak sasoiaren arabera egiten ditu; «Eguberrietan jokoak eta panpinak, kurtsotan eskolako materiala eta liburuak, eta egunerokoan prentsa ere saltzen dugu». Liburu digitalak gero eta gehiago ikusten badira ere, «jendeak fisikoan irakurtzea gustuko du, bertze xarma bat dauka. Ez dut uste paperezko liburua galduko denik».



Senpereko Ttiki Trail eginen dute aurten lehen aldikotz

Martxoaren 11n eta 12an eginen diren lau probetan bi mila kirolari baino gehiago espero ditu SPUC Lasterka taldeak

TTIPI-TTAOA

Senpereko Trail arrakastatsua-ren hamaikagarren edizioan abian da, modurik azkarrean. SPUC Lasterka elkarteak helduendako lau lehiaketa aurkeztu ditu martxoaren 11n eta 12an, iraganen diren hitzorduetara. Joan den urtean 2.000 korrikalari baino gehiago izan ziren asteburu horretan. Aurten, gainera, lehen aldikotz Senpereko Ttiki Trail lasterketa eginen dute, igandean 09:15ean abiatuta. 2013 eta 2016 urteen artean sortutakoek 1,1 kilometroko ibilbidea izanen dute eta 2009 eta 2012 urteen artean sortutakoek 1,6 kilometrokoa. Izen emateak urrikerik izanen dira egunean berean eta helmugara iristean opari ttikia eta krakada izanen da denentzat.

Larunbatean 80, 42 eta 10 kilometroko lasterketak

Larunbatean, 05:00etan abiatuko da bigarren aldikotz antolatu duten Tontorrez tontor ultra trail lasterketa. 80 kilometroko proba da, 5.600 metroko desnibelarekin. Denok

ulertu dugu goi mailako lasterkariei zabaldua dela. Geroxeago, 09:00etan, Gotorlekuen itzulia hasiko da, 42 kilometroko distantzia, 2.800 metroko desnibela eta Larhango gotorlekuen gaindi pasako den lasterketa. Hau ere ohi-tura dutenei edekia da. Berantago, 11:00etan, Ibar Run Trail lasterketak hartuko du lekukoa, 10 kilometro eta 450 metroko desnibel positiboarekin, hau amateurrendako.

Igandean Senpereko Trail

Igande goizean, 09:00etan abiatuko da Senpereko Trail ezagunaren hamaikagarren edizioa. 21 kilometro eta 1.100 metroko desnibela ditu mendilasterkari ugari biltzen dituen probak. Oinezkoak ere ez dira ahantziak, eta bi ibilbide proposatuak dira lagunartean edo familian gozatzeko: 16 edo 9 kilometrokoak.

Joan den igande goizean, 10 eta 21 kilometroko ibilbideak ikuskatzeko eta prestatzen hasteko ateraldia antolatu zuen SPUC Lasterkak.



GANEX

Goazen 9.0 emanaldi zoragarriak

Kiroldegian jendetza handia bildu zen otsailaren 4an, ETBn hain ezagun egin den Goazen taldea ikusteko. Erran behar da talde horretan Joanes Etxebeste saratarak parte hartzen duela. Olhain Ikastolak antolatutako kontzertuetarako sartzeko guztiak agorturik, bi emanaldi egin zituzten.

Monique Chenot da Mediatekako lehendakari berria

Mediatekako bulegoa aldatu dute. Orain arte lehendakari zen Annie Pouyet-ek utzi du bere kargua. Bulego berria honela dago osatua: Monique Chenot lehendakaria, Elisabeth Imbert sekretarioa, Genevieve Allain-Hiriart sekretario teknikoak, Chantal Garat diruzaina eta Elixabet Azcarraga diruzain ordea. Bulegotik aparte badira 13 lagun okupatzen direnak Donibane Lohizuneko liburutegiko batekin. Bulegoaren aldaketa izigarri ongi pasatu da, eskerrak emanez Annie Pouyet-eri.

Ihauteriak borobiltzeko solasaldia igandean

Ihauterietako ospakizunik handienak bururatu dira, umore onean. Joan den asteburuko ospakizunak ederrak izan ziren, aitzinetik ere izan zen non josta, baina oraindik ihauterietekin lotutako bi jarduerak ikusgai eta entzungai izanen dira lezeetan. Otsailaren 26ra arte ikusgai da Sarako elkarte, ikastetxe eta artisten Ihauteri erakusketa. Eta otsailaren 26an, hain zuzen, igandean 16:00etan, Thierry Truffaut-ek ihauterietan buruzko konferentzia emanen du lezeetan, urrikerik.



'Besteen kalea' antzerki ikuskizuna euskaraz izanen da otsailaren 28an.

Kultur eskaintza ugaria negu minean bihotzen altxagarri

Kalakan eta Albosax taldeen musika, Besteen Kalea antzerkia eta Herri Urrats bertso saioa datozen egunetan

JL BESSONART

Negu bihotzean izaiteak halako tristura giro bat sortzen du. Haatik egunen luzatzeak eta udaberriak bere sudur punta erakusteak, bihotz altxagarri daitezke, eta nola ez alegeratu ikusiz zenbat kultur ekitaldi eskainiak zaizkigun banan bana.

Kalakan Kontzertuan otsailaren 25ean (21:00) Larreko kulturgunean, balio ote du hauen aukezpena egitea, hain dira ezagunak Euskal Herrian baina haratago ere. Aurten 10. urteurrena ospatzen dute. Erreserbak 15 eurotan, www.kalakan.eus/kontzertuak, baita lekuan bertan ere.

Besteen Kalea: otsailaren 28an (19:30) Larreko, euskarazko antzerki-ikuskizuna, ordu baten iraupenarekin. Hiru ipuinetatik abiatuta egina: Prezioa 10 euro, prezio murriztua 6 euro, Euskal Herriko Turismo bulegoetan, tokian bertan.

Albosax martxoaren 4an (21:00) Larreko, hemen ere gaitzeko kontzertua eskainia da. Lau albokari, lau saxofoi-lari eta erritmika sekzio baten



Albosax taldea. ARTXIBOKOA

ez ezohiko ezkontza bat da. Musikari ongi ezagunak dira Euskal musika mailan bereziki Mixel Ducau ekimen honen sortzailea. Erreserbak 20 eurotan Euskal-Herriko turismo bulegoetan, lekuan bertan ere.

Herri-Urrats bertso saioa: martxoaren 5an (16:00) Larreko antzokian, azkeneko txapelketa nagusiko zortzi finalisten ikus-entzuteko aukera eskainia zaigu. Maialen Lujanbio, Amets Arzalluz, Nerea Ibarzabal, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi, Joanes Illarregi, Alaia Martin, Sustrai Colina. Prezioa 12 euro, eta hamabi urtez beheitikoek 6 euro. Erreserbak: Elkar dendan Baionan, www.herriurrats.eus, Ikastola, Gaintxiki trinketean.



JL BESSONART

Jazz kontzertu ederra

Larreko kulturgunea leporaino beterik, urtarrilaren 28an jazz kontzertu aparta eskaini zuten Celia Kameni abeslariak eta Alfio Origlio pianistak, Rémi Vignolo kontrabaxuan eta Zaza Desiderio baterian lagun zituztela. Kameniren ahots ederrarekin musika liluragarria uztartu zuten.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net ☎ 943 616 587
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Korrikalariak Frain kaskora ailegatzten, joan den urtean. ARTXIBOKOA

Lesakako IV. Mendi Lasterketa egingen dute martxoaren 12an

14 kilometro luzeko eta 900 metroko desnibela duen proba antolatu du Beti Gaztek, Frain (455 m) eta Unanua (650) igoz

TTIPI-TTAPA

Beti Gazte elkarteak Beti Gazte Laxterka taldeak antolatutako Lesakako Mendi Lasterketaren laugarren edizioa martxoaren 12an egingen dute. Igandean 10:00etan abiatuko da 14 kilometro luze eta 900 metroko desnibela duen lasterketa nagusia plazatik eta

Frain (455 metro) eta Unanua (650 metro) igo beharko dituzte berriz ere plazan helmugaratu baino lehen. Nafarroako Mendi Federazioan federatutako kirolarientzako rankingerako puntuagarria izan den proba izanen da, baina ez da derrigorrezkoa federatua egotea.

Ados pilota elkartearen eskuz binakako txapelketa azken txanpan sartua da

TTIPI-TTAPA

Ados pilota elkarteak antolatutako eskuz binakako pilota txapelketa azken txanpan sartua da. Inauterietako larunbatean Tolosan jokatu behar zituzten final laurdenetako partiden ondoren, finalerdiak Azeptian otsailaren 25ean eta Iruñeko Labriten otsailaren 26an jokatuko dituzte. Final laurdenetako irabazleen esperoan daude finalerdietan Barrocal eta Ruiz de Larramendi eta, seguruenik, Goiuri Zabaleta leitzarra eta Agirre. Final handia, berriz, Zuma-



Goiuri Zabaleta sakean.

rragan jokatuko dute martxoaren 5ean, 12:00etan.

Finalerdietako eta final handirako sarrerak Internetez ere eskuratzeko aukera dago Ados pilotaren web gunean.

Izen ematea martxoaren 8ra arte egin daiteke

16 urtetik goitiko lasterkariei zuzendutako lasterleta da, aurten ere ez baita Gazte Trail lasterketarik egingen. Halere, 16 urtetik beheitikoek ere izanen dute parte hartzeko aukera, gurasoen edo tutorearen baimena aurkeztuta. Izena emateko epea martxoaren 8an bukatuko da, www.herrikrosa.eus webgunean.

Izena eman dutenek dortsalak lasterketa bezperako larunbatean hartzeko modua izanen dute, 16:30etik 18:30era eta probaren egunean 08:00etatik 09:30era, Lesakako Udaltxeko arkupeetan. Sei hornidura gune izanen dira ibilbidetan, helmugakoa barne.

2019an hasi ziren mendi lasterketa urtero antolatzen eta 2021eko egin gabe utzi ondoren, joan den urteko hirugarren edizioan 156 kirolarik parte hartu zuten. Kopuru hori gainditzea espero du aurten Beti Gaztek. Errekorrei dagokionez, Hondarribiko Joxe Amunarrizek egin zuen gizonen 2019ko lehen edizioan (1.11.15) eta Zarauzko Nerea Amilibiak iazko hirugarren edizioan emakumeena (1.35.27).

Areto futbol txapelketa solidarioa jokatuko dute Baztanen

TTIPI-TTAPA BAZTAN

Areto futbol txapelketa solidarioa jokatuko dute apirilaren 5etik 9ra Elizondoko kiroldegian. Bidelagun elkarte eta herrietako eskola ttikiak lagunduko dituzte bildutako diruarekin. Gehienez hamabi talde parte hartu ahaliko dute kirola eta elkertasuna uzartuko dituen txapelketa honetan eta izen-ematea martxoaren 10era bitarte egin daiteke baztanfutbito@gmail.com helbide elektronikoan. Talde bakoitzak 125 euro ordaindu beharko du.

Unai Obregozo antolatzaileetako batek aipatutakoaren arabera, «Donezteben Eguberrietan egiten duten futbito txapelketa oinarritzat hartuz, Baztanen Aste Saindurako berdintsua antolatzen saiatzen ari gara». Hamabi talde izena ematen badute, hiruna taldeko lau multzotan banatuko dituzte eta multzo bakoitzeko lehenbizikoek jokatuko dituzte finalerdiak.



UTZITAKOA

Iparraldeko paxaka txapelketa Elizondon

Iparraldeko paxaka txapelketako bigarren mailako final laurdenetako partida jokatu zuten otsailaren 12an Antxitonean. Laxoa Elkarteko Juan Mari Maia elizondorak eta Manu Irigoien erratzuarrak 13-12 irabazi zieten Senpereko SPUC elkarteak Iñaki Iziaga eta Pierre Ducassouri.



Eneit Bertiz Platja D'Aroko proban. Garaipen handia lortu zuen. AMAIA APEZETXEA

Lehen UCI probak irabazi ditu Eneit Bertiz sunbildarrak

Otsaileko lehen asteburuan Kataluniako Volcat Platja D'Aro nazioarteko proban garaile izan zen junior mailan

TTIPI-TTAPA SUNBILLA

Joan den urtean, junior mailan, mendi bizikletako Nafarroako eta Euskadiko txapelkun izan zen Eneit Bertiz Apezetxea sunbildarra, Katea Bike taldearekin. Aurten, UCI taldea den Saltoki-Conor taldearekin hasi da, ezin hobe gainera. Otsaileko lehen asteburuan

Kataluniako Platja D'Aron jokatuak Volcat Platja D'Aro UCI proban garaile suertatu zen Bertiz junior mailan, larunbateko nahiz igandeko probetan nagusitu ondotik. Aipagarria da kategoria guztietako 200 txirritulardari baino gehiagoren artean hamalau garren izan zela Eneit Bertiz.



UTZITAKOA

Iturregi eta Sagaseta txapelkun

Laxoa Elkarteko Xuban Iturregi eta Jon Sagaseta iruritarrek irabazi dute Nafarroako lehen mailako klub arteko erremonte txapelketa. Otsailaren 4an Iruñeko Labriten jokatuak finalean 35-21 irabazi zieten Agoizko Osés eta Baztani. Lauak agudo profesionaletan debutatzekoak dira.

Larunbateko lehen etapan ordubete, 41 minutu eta 55 segundo behar izan zituen Bertizek proba irabazteko. Sprint estuan nagusitu ziztaion UC Gradignan taldeko Julien Hemon frantziarrari. Ia minutuko aldea atera zioten hirugarren izan zen Matisse Van Kerckhove belgiarrari (Origen MTB Team).

Igandeko bigarren etapan ere junior mailan garaile izan zen Eneit Bertiz eta hamabi garren denborarik onena egin zuen, gainera. Oraingoan ordubete, 50 minutu eta 7 segundo behar izan zituen. Zazpi segundoko aldea atera zion IKHP taldeko Nils Johansson suediarri eta minutu batekoa Bear National Team taldeko Nicholas Konecny estatu batuarrari.

Bi egunetako denborak batura, noski, junior mailan garaile suertatu zen Eneit Bertiz (3 ordu, 31 minutu eta 58 segundo). Konecny bigarren izan zen (3.34.26) eta Artsport Unica Factory Team taldeko Pol Ferran kataluniarra hirugarren (3.36.07).

Ondoko igandean La Nucia (Alacant) egindako proban erori egin zen Bertiz eta 25. postuan bukatu zuen.

II. Euskal Duatloiko finalean ez da eskualdeko kirolaririk izanen

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 5ean Azpeitiko zezen-plazan jokatuak den II. Euskal Duatloiko finalerako sei finalista erabaki ziren otsailaren 11n leku berean. Etzanda jarritako 45 ontzako bi enbor moztu, lasterka 2 kilometro egin eta 45 ontzako zutikako bi enbor moztu behar izan zituzten Azpeitiko kanporaketan. Oier Kañamares izan zen bizkorrena (14:47), eta berekin batera, Ibai Soroa (15:18), Arkaitz Jauregi (15:48), Suhari Rodriguez (15:56), Xabier Zaldua (16:47) eta Eneko Saralegi (17:02) izanen dira finalista.

Julen Olano leitzarra eta Patxi Mindegia zubietarra finalean sartzetik 38 segundora gelditu ziren. Biak denbora berean bukatu zuten lana (17:40), zazpigarren postuan berdinduak. Asier Pellejero aresoarrak, berriz, 20 minutu eta 48 segundo behar izan zituen lana burutzeko eta hamaseigarren bukatu zuen.



UTZITAKOA

Uxuri Portu traileko podiumean

Trial denboraldi berriko lehen proba izan zuten otsailaren 5ean Lizarran. Lesaka Trial taldeko Uxuri Portuk hirugarren postua eskuratu zuen alebin misto kategorian. Xabier Valverde, berriz, laugarren izan zen juniorretan. Adinez dagokiena baina kategoria handiagoan aritu ziren biak.

OTSAILAK 23 - MARTXOAK 9

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



DONEZTEBE **Baztan-Bidasoko V. Stock Feria**

Denok Bat merkatarien elkarteak antolatua, eskualdeko 20 dendeke parte hartuko dute azokan. Ezkurra pilotalekuan, martxoaren 4an 10:00etatik 20:00etara eta 5ean 10:00etatik 19:00etara.

AZOKAK

LESAKA **Merkatu ttikia**

Beheko plazan, otsailaren 25ean, 10:00etan.

ELIZONDO **Baztango Artisauak eta Nekazariak**

Plazan, martxoaren 4an, goizez.

DONEZTEBE **Baztan-Bidasoko V. Stock Feria**

Ezkurra pilotalekuan, martxoaren 4an eta 5ean, goiz eta arratsaldez.

MUSIKA

SENPERE **Kalakan taldea**

Larrekon, otsailaren 25ean, 21:00etan.

Albosax taldea

Larrekon, martxoaren 4an, 21:00etan.

BERA **Kantauri Abesbatza**

Kultur etxean, martxoaren 4an, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

LEITZA **Emakume migranteei buruzko Gari Garaialderen argazki erakusketa**

Torrean, martxoaren 10era arte.

BERA **Iker Valleren marrazki erakusketa**

Labiaga Ikastolako Areto Nagusian, martxoaren 19ra arte, larunbat eta igandeetan 16:00etatik 20:00etara.

BERTSOAK

GOIZUETA **'Bertso afari independentea'**

Mikel Altzuart, Xabier Silveira, Julen Zulaika eta Rikardo Gonzalez de Duranarekin. Oxeguardan, martxoaren 3an.

SENPERE **Herri Urrats bertso saioa**

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalistekin. Larrekon, martxoaren 5ean, 16:00etan.

SOLASALDIK

ELIZONDO **'Mexikar iraultza Pancho Villaren korridoetan' solasaldi musikatua**

Mexikortxo taldearekin. Amezti elkartearen, otsailaren 23an, 19:30ean.

'Lodifobia eta estetikaren esklabotza'

Arizkunenean, martxoaren 9an, 18:30ean.

SARA **Inauteriei buruzko konferentzia**

Thierry Truffautekin. Lezeetan, otsailaren 26an, 16:00etan.

BERA **Herriko bestetako bilera parte-hartzailea**

Berlandetan, otsailaren 28an, 18:00etan.

Geuretik Sortuak proiektuaren aurkezpena

Herriko Etxeko plazan, martxoaren 3an, 11:00etan.

Bortzirietako EH Bilduren solasaldia

Kultur Etxean, martxoaren 10ean, 18:30ean.

ERRATZU **Nerea Ibarzabalen liburu aurkezpena**

Lixutegian, martxoaren 3an, 18:30ean.

PROIEKZIOAK

IRURITA **'Loreak belanetan' dokumentala eta solasaldia**

Gizarte Bilgunean, otsailaren 24an, 19:00etan.

LEITZA **Zinema**

Herri Aretoan, martxoaren 4an eta 5ean. 16:30ean 'Yuku eta Himalayako lorea' eta 19:00etan 'Irti'. Sarrerak leitza.eus-en.

ETXALAR **'Sufragistas' filma**

Kultur Etxean, martxoaren 5ean, 17:30ean.

ANTZERKIAK

IRURITA **'Zeozertan dabil baina ez dakit zertan'**

Metrokoadroka Sormen Laborategiaren eskutik. Gizarte Bilgunean, otsailaren 26an, 18:00etan.

NIRE AUKERA

«Urte osoa inauterien esperoan egoten gara gogo haundiarekin»

DOLORES ETA JUANITA MARIEZKURRENA EZKURRAKO AHIZPAK



Urte osoa Ezkurra inauteriarik ailegatzeko desiatzen egoten diren ahizpak dira Juanita eta Dolores Mariezkurrena Mariezkurrena (Ezkurra, 1951 eta 1956).

Juanita herrian bizi da, Dolores, berriz, Leitza, eta urte osoan ez dira etxetik asko ateratzen, «noizbehinka bazkaltzera edo frontoira pilota ikustera ez bada». Baina argi dute inauteriarik ailegatzean elkarrekin moztu eta ongi pasatzeko eguna dutela.

Egun osoko plana argi dute: «goizean, 10:00ak aldera, herritar guziak elkartzen gara eta etxez etxe ibiltzen gara, arratsaldean txokolatada izaten da plazan, eta gauen denak elkartzen gara bertso afarira eta dantzatzera. Oso ongi pasatzen dugu egun horretan».

Lehenengo oroitzapenak

Ttiki-ttikitatik izan dituzte gustuko inauteriak, nahiz eta lehen «oso desberdinak» izan; «akordatzen naiz lehen gizonek bakarrik ateratzen zirela, eta gu etxeetan egoten ginen esperoan. Denek blusa iguala janzten zuten eta etxez etxe ibiltzen ziren. Bertan arraultzeak, txistorra, urdaia, gazta eta horrelakoak ematen zitzaizkien eta horiekin afariak egiten zituzten egunero. Gero gauean neskak haiekin dantzatzera ateratzen ginen, baina afaltzera ez».

«Bertze denbora bat zela» diote, baina hala ere «oso polita izaten zen eta oroitza-pen oso onak ditugu. Etxera etortzen zirenean gailetak anisarekin eta kafearekin ateratzen genien, eta gero batzuk dirua ematen zieten eta bertze batzuk, dirurik eman

ezin zutenak, oilo edo oilaskoren bat. Gauean afaria egiten zuten bildutakoarekin. Ederra izaten zen baina ez ginen orain bezala moztortzen eta ilunabarrean dantzan ibili ondotik denak etxera joaten ginen».

Gainera, «urte askotan inauteriarik ospatzeari utzi zitzaion, jendea kanpora joaten zela eta. Jaionek alkate-tza hartu zuelarik hasi ginen berriz, duela sei urte».

Besta berrartuz

Gauregun, «ume, gazte, gizon eta emakume, denak elkartzen gara eta denak ibiltzen gara etxez etxe hamaiketakoak egiten. Giro desberdina dugu orain, oso polita, eta ez genduke galdu nahi. Eskerrak Jaio-neri!».

Orain ahizpak urtero ateratzen dira, hutsik egin gabe; «gainera igual moztortzen gara eta bixkiak ematen dugu!». Argi dago oso ongi pasatzen dutela; «duela hiru urte, adibidez, behiez jantzita atera ginen eta bertsolari-ekin txistek, txantxak eta kristoren parrak egin genituen!». Gainera, musika «asko» gustatzen zaie, eta «hankak izorratuak baditugu ere, musika entzutean dantzan hasten gara segidan».

Ateratzeko prest

Aurten otsailaren 25ean ospatuko dituzte inauteriarik Ezkurran, eta ahizpak ateratzeko prest daude. «Oso gogotsu gaude, mozturoak prestatzen aritu gara eta koloretako ileordeekin aterako gara!».

Gainera, ez dira herrikoak bakarrik aterako; «batzuk familia kanpoan dute baina eskean aritzera etortzen dira eta giro ederra sortzen da. Gazte askorik ez dago, baina umeekin batera 50-60 lagun inguru elkartzen gara eta oso egun polita da».

«LEHEN GIZONAK BAKARRIK ATERATZEN ZIREN»

«DUELA SEI URTE HASI GINEN INAUTERIAK BERRIZ OSPATZEN»

'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi'

Kamikaz Kolektiboaren eskutik. *Gizarte Bilgunean, martxoaren 5ean, 18:00etan.*

SENPERE

Besteen Kalea

Larrekon, otsailaren 28an, 19:30ean.

LEITZA

'Hoy puede ser mi gran noche'

Vilo konpainiaren eskutik. *Herri Aretoan, martxoaren 12an, 19:00etan.*

BERTZELAKOAK

ELIZONDO

Sahararren aberri eguna

Otsailaren 24an. 19:00etan elkarretaratzea plazan eta 19:30ean dokumentala Arizkunenean.

Ipuinaren ordua

Liburutegian, martxoaren 8an, 18:00etan.

Bailableak Elizondoko Gaiteroekin

Muxikoak, jotak eta larrain-dantzak. *Plazan, martxoaren 12an, 12:30ean. Euria eginez gero, Braulio Iriarte pilotalekuan.*

LESAKA

Kontuan hartu eta kontatzeko istorioak

Literarteren eskutik. *Liburutegian, martxoaren 9an, 18:30ean.*

Beti Gazteren mendi lasterketa

Martxoaren 12an. Izen ematea herrikrosa.eus-en.

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



OIZ. 300m²ko bi bizitzako etxea salgai, 342m²ko partzelarekin. 5 logela eta 44,8m²ko garajea. Bizitzeko prest. Aukera polita. Prezioa 325.000 euro. ☎687 63 27 37 (Eli).



OIZ. 70m²ko apartamentua herriko etxe baten beheko solairuan. Eraberitua eta altzariz hornitua, bizitzera sartuko prest. Bi gela, egongela tximiniarekin, sukaldea eta trasteleku txiki bat. Prezioa 95.500 euro. ☎687 63 27 37 (Eli).

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDOn edo **INGURUA**n. Lanean ari den neska batek pisua errentan hartu nahi du. ☎686 16 77 46.

ORONOZen edo **ELIZONDO**n lanean ari den neska batek epe luzerako apartamentua errentan hartu nahi du. ☎650 72 96 39.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

LEITZA. Garajea salgai. ☎619 85 44 90.

BERTZELAKOAK

BERA. Ostatau traspasatzeko. ☎617 72 34 75.

LANA

ESKAINTZAK

IGANTZI. Irrisarri Land-en asteburuetan aritzeko aktibitateetarako monitoreak behar dute (tirolinak, zaldia, ibilbide gidatuak...). Martxotik azarora arte aritzeko. Espe-

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

rientzia eta kotxeko baimena izatea kontuan hartuko dute. Interesatuak curriculumak bidali: gestion@irrisariland.com.

IGANTZI. Irrisarri Land-en aktibitateetarako monitoreak behar dute astegunez lan egiteko (tirolinak, zaldia, ibilbide gidatuak, hainbat adin talderen kudeaketa...). Martxotik azarora arte aritzeko. Euskaraz jakitea eta kotxeko baimena izatea kontuan hartuko dute. Interesatuak curriculumak bidali: gestion@irrisariland.com.

IGANTZI. Irrisarri Land-en ostaturako zerbitzari bila ari dira. Martxotik azarora arte aritzeko. Euskara jakitea, esperientzia eta kotxeko baimena izatea kontuan hartuko dute. Interesatuak curriculumak bidali: rrhh@irrisariland.com.

IGANTZI. Irrisarri Land-en sukaldari eta parrilan aritzeko pertsona baten bila ari dira. Martxotik azarora arte aritzeko. Esperientzia eta kotxeko baimena izatea kontuan hartuko dute. Interesatuak curriculumak bidali: rrhh@irrisariland.com.

IGANTZI. Irrisarri Land-en parkeko alojamenduetan (aterpea, hotela eta bordak) garbitzaileak behar dituzte. Martxotik azarora arte aritzeko. Kotxeko baimena izatea kontuan hartuko dute. Interesatuak curriculumak bidali: nekanemariezkurrena1@gmail.com.

DANTXARINEA. Mas por menos dendan urte guzira eta lanaldi osoan aritzeko jendea behar dute (kontratu luzerako aukera). Frantseza jakitea kontuan hartuko dute. ☎687 73 92 40.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,31€
- 1.koa 5,19€
- 2.koa 5,07€

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,42€
- 1.koa 5,28€
- 2.koa 5,17€

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00€
- Idixkoak 150,00€

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00€
- Idixkoak 140,00€

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,20/5,30€
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69€

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,70/8,80€
- 8-10 kilokoak: 6,80/7,50€

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 84 €

Zerri gizona 1,795 €

Zerramak 0,260€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua otsailaren 3tik 10era bitarteko prezioak)

SUNBILLA. Arratsaldetan adineko bat zaintzeko pertsona baten bila ari dira. ☎699 14 66 85.

ESKARIAK

Neska bat prest dago, posible bada, interna gisa adineko jendea zaintzeko eta etxeko garbiketa egiteko. Ahal bada, Urdazubi edo Zugarramurdi aldean. ☎658 53 32 48.

Emakume bat adinekoak eta haurrak zaintzen ariko litzateke. ☎603 43 41 11.

ZERBITZUAK

ZURGIN LANAK



DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 45 14 26.



Txokorako bankua salgai. Egoera onean. Neurriak: 251 cm luze x 210 cm zabal. Prezioa 150 euro. Apropo txoko baterako. ☎660 58 86 05.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

ERRATZU. Bi zakurkume opari emateko, Border Collie eta Mastin arrazen nahasketa. ☎629 00 57 64.

ETXALAR. Txakurkumeak oparitzeko. Ama Labrador eta Border Collie arrazen nahasketa da eta aita Border Collie arrazakoa. ☎662 20 25 35.

SALGAI



Border Colie arrazako zakurkumeak salgai. Atta eta ama lanean dakite-nak. ☎616 10 90 50.

MOTORRAK

SALGAI



Volkswagen California salgai, 2005. urtekoa. 225.000 km. Oso egoera onean. ☎636 87 09 36.



Autoa salgai, egoera onean. Prezioa 4.800 euro. ☎690 05 09 03.


TAILERRAK



URTEBETETZEAK



Ataxi **Martinek** eta **Lukenek** urteak bete dituzte otsailaren 8an eta 13an. Aunitz urtez eta espero dugu egun ederra pasatu izana! Muxu pila-pila-pila!!



Aitor eta **Maddi Baleztena Truebak** 9 urte beteko dituzte otsailaren 26an. Zorionak eta muxu bana Eratsungo, Sunbillako eta Arantzako familiaren partetik.



Amaiurko **Eider Ariztia Garmendiak** 5 urte beteko ditu otsailaren 23an. Ederki ospatu zure eguna familia eta lagunekin!! Aunitz urtez!!



Amaiurko **Enara Ariztia Garmendiak** 3 urte bete ditu otsailaren 21ean. Zorionak eta aunitz urtez familia guziaren partetik!! Muxu haundi bat!!



Berako **Silbiak** otsailaren 26an eta Urruñako **Laidak** otsailaren 25ean urteak beteko dituzte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



Legasako **Iradi Arteaga Andresenak** marxoaren 1ean 7 urte beteko ditu. Zorionak zure familiaren partetik. Egun polita pasatu. Mila muxu zuretako!



Ibai Mendizabal Maiz aranztarrak 6 urte bete ditu otsailaren 19an. Aunitz urtez familia guziaren partetik! Muxu haundi bat!

KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publizitatea
www.kulturkari.com

Olanak, Roll-up PVC
Zuloekin izkinetan, errefortzu bikoitza, formatu handiak, mikroperforatuak...

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAN!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidea sartuta.

Bulegoan eta postaz
Koskontako bidea, 7-1-31770
LESAKA helbidera etorrita edo bidalita.

Whatsappez 744 48 43 61 zenbakira idatzita.



Zorionak atautxi!!! 65 muxu haundi zure biloben partez!!! Eutsi ehizari!!!

SORTZEAK

- **Jara Olaizola Bazterrika**, Lesakakoa, otsailaren 13an.

HILBERRIAK

- **Daniel Ponce Orezzoli**, Doneztebekoa, otsailaren 1ean, 79 urte zituela.
- **Angela Sanzberro Alberdi**, Oronoz-Mugairikoa, otsailaren 1ean.
- **Manuel Luis Ormaetxea Barca**, Elizondokoa, otsailaren 2an, 81 urte zituela.
- **Fernando Sanzberro Arburua**, Etxalarkoa, otsailaren 2an, 81 urte zituela.
- **Bautista Sukunza Rekondo**, Aresokoa, otsailaren 3an, 88 urte zituela.
- **Jose Ramon Etxeberria Etxeberria**, Etxalarkoa, otsailaren 4an, 76 urte zituela.
- **Patxi Iriarte Inda**, Amaiurkoa, otsailaren 7an, 66 urte zituela.
- **Angeles Trantxe Larralde**, Elizondokoa, otsailaren 9an, 90 urte zituela.
- **Juan Felipe Franchez Perurena**, Elizondokoa, otsailaren 9an.
- **Isidro Astiz Olague**, Almandozkoa, otsailaren 11n.
- **Joxe Mari Ariztimuño Canflanca**, Leitzakoa, otsailaren 12an, 79 urte zituela.

OROIGARRIA

Joxe Mari ARIZTIMUÑO CANFLANCA
Leitza, 2023ko otsailaren 12a

Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gaitetik aitzinerat ekin bitizari helduar gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin





IZARRA
HERRI, ZURE ONDOKO ABERA A ITZULDU




TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

Gure harra, gure jendea, gure sustraiak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com




- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tipi.eus
www.kulturkari.com

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruongo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es



BAZTAN BIDASOA
Onaketa Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEEn Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com


Betiko taldea zu laguntzeka

HITZ GEZIDUNAK

	Hastapena	• Iona	Emaztearen bikoteakide	Utik, ospal	Naraina
	Nafarroako udalerria	Euskal sindikatuak	Normak	Herri, aberri	Amazoi
	Nafarroako eskualdea			Idi, hitz elkarreketan	
	56			Amerikano	
Limola, esaterako	Askapena				
• Deltura	Urrunekoak, arroza				
		Nafarroako udalerria			Koetxo- naotza
		Ogi egileak			Ereinetz
Pobre, behartze			Tona, labor-labor	Europako ibala	
Garai, sanol			Koetxo- naotza	Aholegar	
	Beltzar agirikak				Inguru
	Kortezubiko basoa				Plau neurri
Armas ezak hil		Bokai mehea	Katilu taldea		
Ekitea		Zoro	Emakume izena		
			Zangoaren muturrean		Erbia
			Artsenikoa		
Bukarraz, arara				Togiko hielberua	
Txinako inaultzalea				Iodia	
	Parada, egokiera, abagunea				Oinarriko edari

◆ Txirindulari ohi leitzarria

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Eroso bizi denaren egoera.
- [2] Ekintza, egitea.
- [3] Potoloa.
- [4] Zernahi izendatzeko erabiltzen den hitza.
- [5] Baztango herria.
- [6] Berako auzoa.
- [7] Zara, saratarrek dioten gisara.
- [8] Mihi-sea, maindorea.
- [9] Nafarroako udalerria, Iruñeko merindadean.
- [10] Ardiak zaintzen dituen pertsona.
- [11] Europako estatua, hiri-riburutzat Paris duena.

ERANTZUNAK



ERNE!

Berrikuntzekin gatoz!

PLAZAN BAZAN

ZEEER?!

Jarri irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta abesti ezagun baten zatia agertuko zaizu.



MARIPURTZIL

PELLOZIRI

The illustration shows a night scene with a full moon, a wolf howling, a bird, and an owl. Several speech bubbles contain food icons and empty circles for labeling. The food icons include: carrot, mushroom, green pepper, egg, fly, tomato, spider, bread, cucumber, carrot, egg, spider, tomato, mushroom, green pepper, egg, carrot, and bone.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
U	V	W	X	Y	Z	.	,	!	?

Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aizurri)

**Plazan bazan egiteak
BADU SARIA!**

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin,
Ttipi-Ttapako Whatspera: (0034) 774 48 43 61
zure izen-abizenak jarrita.
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



Loguntzailea:

HAMAIRA IKUSTEKO JAIOAK

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Il dira guztira.



HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordena itzazu izar uxook handienari 1, hurrenari 2 eta txikienari 8 zenbakia emanaz.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Kaskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

823 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Felix Mena Barberena | ELIZONDO

Buatxabal - Kamiseta bat
Amalia Azpiroz Rekondo | LEITZA

Salting Iruñea - Bi sarrera
Alaitz Arretxea Etxeberria | BERROETA

Ezkexa - Kamiseta bat
Itsaso Huizi Pradanos | LESAKA

Arkupe - Lote bat
M^a Carmen Otxandorena | DONAMARIA

Okille - Eguzkiltore bat
Anunciación Zubia Iguzkiagirre | IGANTZI

Izar Park - Sarrera bat
Mikel Baleztena Iruretagoiena | DONOSTIA

Katxiporreta - DVD bat
Ana Irigoien Arretxea | DONEZTEBE

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

BIDASOIL

N-121A errepidea 74. Km. Behobia/Irun



30€ko deskontua

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



Sarrera bat

TABERNA EDARIAK

www.tabernaedariak.eus



Lote bat

IZAR PARK

www.galaxypark.eus



Sarrera bat

**MU
SI
KA**



Bi CD

airaka

www.airakamusic.com

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.baga-biga.eus



www.manuelaariztela.com